



JARDUEREN URTEKO TXOSTENA



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**
Autoridad Vasca de
Protección de Datos

JARDUEREN URTEKO TXOSTENA



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**
Autoridad Vasca de
Protección de Datos



Datuak Babesteko Euskal Agintaritza – Autoridad Vasca de Protección de Datos
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua
01008 VITORIA-GASTEIZ
avpd@avpd.eus
www.avpd.eus

JARDUEREN URTEKO TXOSTENA - 2024

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urtero

LG: VI 312-2006

Lan hau Creative Commons da



Aitorpena (by)

Aske zara:

- lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesak duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.eu>



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1	AURKEZPENA	4
2	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA	7
2.1	Kontseilu Aholku-emaileko kideak	7
2.2	Kontseiluak egindako bilerak	8
3	AHOLKULARITZA-JARDUERA	10
3.1	Telefono bidezko arreta, zuzeneko arreta eta arreta telematikoa	11
3.2	Kontsultak	11
3.3	Irizpenak	12
3.4	Txostenak	17
3.5	Batzarrak	18
4	KONTROL-JARDUERA	20
4.1	Eskubideen babesa	20
4.2	Salaketak	30
4.3	Administrazio publikoen arau-hauste prozedurak	36
4.4	Autoak eta epaiak	46
5	DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA	48
5.1	Toki Administrazioa	49
5.2	Tratamendu-arduradunek datuak babesteko ordezkariarekin duten lotura	49
6	SEGURTASUN-ARRAKALAK JAKINARAZTEA	51
7	DBEAKO LANGILEEK EMANDAKO PRESTAKUNTZA	54
8	DOKUMENTAZIO ZENTROA	56
8.1	Dokumentazio zentroko jarduketa nagusiak	56
8.2	Dokumentuen kudeaketa	57
8.3	Komunikazioa	57
8.4	Lan-tresnak	58
8.5	Beste proiektu batzuk	58
8.6	Komunikabideak	59
9	BARNE KUDEAKETA	62
9.1	Egitura eta langileria	62
9.2	Aurrekontuak	64
9.3	Baliabide materialak	66
9.4	Laneko Arriskuen Prebentzioko Politika	67
9.5	Kudeaketa jasangarria eta ingurumen-eragina	67
10	AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK	68
11	KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK	69
12	BARNE KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK	70
12.1	Aurrekontu-plantillari buruzko datuak	70
12.2	Aurrekontu-betearazpenari buruzko datuak	71



1 AURKEZPENA

Hona hemen Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak (DBEA) 2024. urtean egindako jardueren txostena, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 8.8 artikuluan xedatzen dena betetze aldera, eta Europar Batasuneko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 59. artikulua arautzen duenarekin bat etorrita, eta Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta datuak babesteko Estatuko gainerako agintaritzei komunikatzeko. Dokumentu honen helburua da euskal gizarteari aditzera ematea Agintaritzak, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen babeserako, 2024. urtean egindako lana. Euskal gizarteari kontu ematea da asmoa, eta, aldi berean, euskal sektore publikoa osatzen duten enteei orientabidea ematea datuen babesaren arloko jardunbiderik onenei buruz, Agintaritzak berak urtean zehar zehaztu dituen irizpideen arabera.

2024. urtean, DBEAren jardueran zenbait mugarri nagusi egon dira. Mugarri horiek bat datoz Agintaritzaren plan estrategikoan ezarritako helburuekin, Agintaritzako lehendakariak bere agintaldiaren hasieran Eusko Legebiltzarrean aurkeztu baitzuen plan estrategiko hori. Lehenengoz, euskal sektore publikoa osatzen duten enteen sentsibilizaziorako eta komunikaziorako zereginari dagokionez, lau alderdi dira nabarmentzekoak. Alde batetik, DBEA hedabideetan eta sare sozialetan gero eta maizago agertzea, euskal herritarrek pribatutasunerako eskubidearen garrantziaz ohartaraztea xede duten kanpainak bultzatzeko. Bestetik, datuak babesteko ordezkarien sarea, HEDATU izeneko sortzea, gun bat taxutzeko, zeinean esperientziak, ezagutza, zalantzak eta dokumentazioa partekatu ahal dira, hori guztia baterako lana, prestakuntza eta lankidetzak bideratze aldera. Gainera, datu pertsonalak esparru jakin batzuetan babesteko moduari buruzko irizpide espezifikoak ekartzen dituzten materialak prestatu ditugu, datuen babesean esku hartzen duten eragile nagusientzat erabilgarriak izango direlakoan. Azkenik, prestakuntza-ikastaro ugari eman ditugu, baita askotariko ekitaldiak antolatu ere, Agintaritzaren ezagutza gizarteari transferitzeko.

Bigarrenenez, Agintaritzak modernizatzeari dagokionez, egoitza elektronikoa nahiz web-orria eraldatzen ari gara, intuitiboagoak eta irisgarriagoak izan daitezen, bai eta erabilerrazagoak ere. Asmoa da DBEA, euskal gizartearen aurrean eta administrazio independente honek berak fiskalizatzen dituen enteen aurrean, ikusgai egotea eta irisgarriagoa eta gardenagoa izatea. Modernizazio-prozesu horren bidez, era berean, datuak babesteko Europako araudiak Agintaritzari eskatzen dion independentzia sendotzen da, helburua baita DBEAk berak -eta ez beste administrazio batek- kudeatuko dituen tresna batzuk sortzea.

Hirugarrenenez, 2023ko amaieran Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lege berria onartu ondoren, berebiziko lana izan da entearen antolaketa eta funtzionamendua birplanteatzea, arau berriak dakartzan beharrianetara egokitzeko helburuz, batik bat kontuan hartuta DBEAren jardura-esparrua zabaltzen dela. Giza baliabideak antolatzeko plana onartu dugu, langile-beharrizan berriei aurre egiteko, eta plantilla egonkortzeko eta handitzeko hainbat neurri bultzatu ditugu. Halaber, Agintaritzaren kanpo-harremanak sustatu dira, nazioarteko lan-gune batzuetan



sartu baikara. Halakoak dira Datuak Babesteko Sare Iberoamerikarra, Spring Conference 2024 32nd European Conference of Data Protection Authorities edo European Case Handling Workshop ECHW 2024. Ekitaldi horietan nazioarteko kontrol-agintaritzekin batera jarduten dugu, mundu osoari eragiten dioten arazoei buruz. Beste alde batetik, Euskadiren Europar Batasuneko ordezkariarekin elkarlanean ari gara, Europako instituzioekiko komunikazio-kanal zuzenak zabaltzeko helburuz. Nazioarteko gaur egungo agertokia gero eta konplexuagoa eta zalantzarriagoa da, eta jomuga da DBEA egoera horretan ondo kokatzea, eta lanean aritzea, Agintaritzak gero eta garrantzi handiagoa izan dezan datuen babesean jarduten duten Europako instituzioen artean.

Laugarrenez, lan-ildo espezifikoak landu ditugu tentuz aztertu beharreko gai batzuetan, esate baterako hezkuntzan, osasunean edo adimen artifizialean. Hezkuntzaren esparruan, hezkuntza-arloko administrazioarekiko lankidetzarako kanal bat zabaltzeko dugu, ikastetxeen digitalizazioak dakartzan erronkei aurre egiteko. Osasunaren esparruan, berriz, Osakidetzako zuzendaritza berriarekiko lankidetzarako gune berria bultzatu dugu, oinarritzakoak diren alderdi batzuk landu ahal izateko -halakoa da, kasurako, Osasun Datuen Europako Esparruari buruzko Erregelamendua-, eta historia klinikoa irispidean izateari buruzko jarraibide bat prestatzeko. Adimen artifizialari dagokionez, ondo dakigu gaur egun euskal sektore publikoa digitalizatzeko prozesuan ezinbestekoa dela, gaur egun, datuak prozesatzean AA erabiltzen duten tresnak erabiltzea, eta Europar Batasunean teknologia hori arautzea xede duen arau-esparru berria prestatzen ari dela. Bada, gauzak horrela, barneko lantalde bat sortu da adimen artifizialak dakartzan erronkei aurre egiteko.

Bosgarrenez, Agintaritzak ahalegina egin du euskararekin hartua duen konpromisoa sendotzeko. Alde batetik, DBEA euskararen erabilera normalizatzeko lehen plana bultzatu du. Bestetik, Korrikaren 2024ko edizioan parte hartu du. Azkenik, lehenbiziko aldiz, euskarari lekua eman zaio 2024ko UIKen udako ikastaroetan, zehazki Agintaritzak antolatutako «Digitalización de la enseñanza: una visión desde la protección de datos» izenburuko ikastaroan.

Aparteko bi gertakari horiez harago, DBEAk jardura zorrotz eta biziari eutsi dio. Alde batetik, aholkularitza-eginkizun garrantzitsua garatu du, datuen babesari buruzko araudia kasu zehatz batzuetan aplikatzeko moduari buruz egon daitezkeen zalantzak ebatziz. Bestetik, ohikoa duen kontrol-jardura egin du; alde horretatik, eskubideak babesteko prozedurei, arau-hausteei eta beste hainbati buruzko espedienteak izapidetu ditu, eta kontuan hartu behar da aurten askoz espediente gehiago izapidetu direla, aurreko urtean baino. Amaitzeko, laguntzako eta lankidetzako jardura nabarmena egin dugu beste ente batzuekin; hain zuzen ere, estatuan jarduten duten gainerako kontrol-agintaritzekin nahiz sektore estrategikoetan -esate baterako, osasunean, hezkuntzan, segurtasunean edo adimen artifizialean- aritzen diren beste administrazio batzuekin, adibidez Arartekorekin edo Basque Artificial Intelligence Centerrekin (BAIC), sektore horietan datuen babesak garrantzi berezia duela aintzat hartuta.



Jardueren urteko txosten hau benetako gardentasun-ariketa da. Horren bidez, euskal gizartea osatzen duten agente batzuek eta besteek fiskalizatu ahalko dute DBEak 2024. urtean egin duen jarduera, eta, gainera, dokumentu honek laguntza emango die datu pertsonalen tratamenduen arduradunei, funtsean euskal sektore publiko osatzen duten enteei, datuen babesari buruzko araudia behar bezala ulertzeko.

Unai Aberasturi Gorriño
Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakaria



2 KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) abenduaren 21eko 16/2023 Legean ezarrita dagoenaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) Kontseilu Aholku-emailea DBEako lehendakariari aholkua ematen dion kide anitzeko organoa da, eta lege horren 9. artikulua xedatzen du nortzuk osatzen duten: Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Euskadiko toki entitateek eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bik (bata informatika esparrukoa eta bestea oinarrizko eskubideen esparrukoa).

2.1 KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO KIDEAK

2024ko abenduaren 31n honako hauek ziren Kontseilu Aholku-emaileko kideak:

- **Raúl García Ezquerro jauna.** Laguardiako alkatea. Euskadiko toki entitateen ordezkaria.
- **Montserrat Auzmendi del Solar andrea.** Eusko Legebiltzarreko legelaria.
- **Agustín Zubillaga Rego jauna.** Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea. Lehendakaritza.
- **Javier Bikandi Irazabal jauna** Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako zuzendari nagusia, Foru Aldundien ordezkari gisa.
- **Eduardo Jacob Taquet jauna.** Ingeniaritza Telematikoko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- **Iñaki Esparza Leibar jauna.** Lehendakaria. Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 6. artikuluan ezarritakoarekin bat, **Ainara Ugalde López andrea**, DBEako idazkaritza nagusia, Kontseilu Aholku-emaileko idazkaria da.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 7. artikuluko 8. puntuan ezarritakoarekin bat, DBEako lehendakari **Unai Aberasturi Gorriño jauna** Kontseilu Aholku-emailearen bileretan egoten da, hitzarekin, baina botorik gabe.

Kontseilu Aholku-emailearen lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.



2.2 KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak honako bilera hauek egin ditu 2024an:

- **Ohiko bilera, 2024ko ekainaren 27an.** Bilera horretan, aurreko akta aho batez onartu da. Horren ostean, idazkari nagusiak DBEaren giza baliabideen plan estrategikoa aurkeztu du. Plan horren helburua da instituzioaren independentzia eta instituzioak bere burua antolatzeke duen gaitasuna sendotzea. Planean plantillaren gaur egungo egoera zehazten da (15 lanpostu beteta eta 4 hutsik). Halaber, lanpostu-zerrendan oraindik sartu gabe dauden beste 9 lanpostuak eta aurreikusten diren erretiroak ere azaltzen dira. Berehalako ekintzak definitzen dira, esate baterako EPEak onartzea, hautaketa-prozesuak garatzea, eta belaunaldiarteko erreleboa planifikatzea. Horrez gain, neurri batzuk iragarri dira antolakuntza-egitura berrikusteko, lanpostu-zerrenda eta monografiak eguneratzeko, giza baliabideak behar bezala dimentsionatzeko eta barne-sustapena bultzatzeko.

Gainera, barneko loturak eta lan-ingurunea sendotzeko ekintza batzuk aurreikusten dira: barneko komunikazioa hobetzea, edukiak zabaltzea, eta protokolo batzuk prestatzea lan-osasunari buruz, laneko jazarpenari buruz eta hirugarrenen erasoei buruz. Neurri horien bidez langileek antolakundearekin duten konpromisoa sendotu nahi da, eta, gainera, ingurune segurua, berdintasunezkoa eta osasungarria bermatzea.

Beste alde batetik, Lehendakariak indarrean dagoen plan estrategikoaren arabera bultzatu dituen proiektu estrategikoak azaldu dira. Proiektu horien ardatzak dira DBEaren agerikotasuna eta kanporako proiektzioa handitzea, herritarrek datuen babesari buruz duten ezagutzea hobetzea eta instituzioen arteko lankidetzak sendotzea. Azkenik, modernizazioko aholkulariak administrazio elektronikoaren arloko aurrerapenak aurkeztu ditu, gaur egungo tresnetan ahulguneak detektatu dituela adierazi ostean. Eusko Jaurlaritzaren eta merkatuaren irtenbideak aztertzen ari dira, EJI Erekina eta beste entitate batzuekin elkarlanean, Agintaritzaren administrazio-arloko efikazia hobetzeko. Bilera eskaririk eta galderarik gabe amaitu da 13:30ean.

- **Ohiko bilera, 2024ko abenduaren 19an.** Bilera horretan, aurreko bileraren akta aho batez onartu da. Eguneko gai-zerrendaren lehenengo puntuan aztertu da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) lehendakariak 2024. urteko enplegu publikoko eskaintza onartzeko egindako ebazpen-proposamena. Gauzak horrela, horrelako eskaintzak arautzen dituen arau-esparrua aurkeztu du idazkari nagusiak. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (EPOE) eta Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legea aipatu ditu, eta aurrekontuko lanpostu hutsak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdiak egitearen garrantzia nabarmendu du. Gainera, azaldu duenez, enplegu publikoko eskaintza ez dago enplegua sendotzeko prozesuen barruan. Hala eta guztiz ere, salbuespenezko egoerengatik (adibidez, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiarengatik) bitarteko langileek bete dituzten plazak betetzea aurreikusten da.

Bete beharreko lanpostuei dagokienez, eskaintza publikoaren bidez bete behar diren egiturazko bost lanpostu hutsen berri eman da. Lanpostu horiek funtsezkoak diren arloei dagozkie, hau da, Aholkularitza Juridikoko arloari, Ikuskaritza arloari



eta Idazkaritza Nagusiari. Hain zuzen ere, DBEaren funtzionamendurako berebiziko lanpostuak direla uste da. Lanpostu horiek betetzeko esleitutako aurrekontua Euskal Autonomia Erkidegoaren 2024ko aurrekontuaren esparruan onartu zen. Gainera, langileen ordezkariekin egin beharreko negoziazio-prozesua burutu zen, ordezkariak oharrak eta ekarpenak egiteko abagunea izan baitzuten.

Jarraian, 2024rako enplegu publikoko eskaintzaosatzen duten lanpostuen zerrenda aurkeztu da. Honako lanpostu hauek dira: Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritza arloan letradu instruktore-ikuskatzaileen hiru lanpostu huts, eta Idazkaritza Nagusian bi lanpostu, bata itzultzaile teknikariarena eta bestea dokumentazio eta informazio teknikariarena. Nabarmendu da DBEaren lehendakariak 2024ko abenduan onartu duela eskaintza hori, ebazpen bidez, eta lanpostu horietarako deialdiak hiru urteko epean egingo direla, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnetik aurrera.

Bilerako punturik garrantzitsuenetako bat izan da DBEan lanpostu berri bat sortzea, Administrazioaren eta Giza Baliabideen kudeatzailearena, alegia. Lanpostu berri horren helburua da antolakundearen barruan ezagutzen transferentzia egokia ziurtatzea, eta hori bilerako kideek onartu egin dute. Gainera, Eragin Teknologikoak Ebaluatzeko Unitatean hizkuntza-arloko eskakizunak aldatzea erabaki da, euskararen ezagutzari buruz legearen arabera eskatzen diren ehunekoak betetzeko, hori funtsezkoa baita hizkuntzaren aldetik indarrean dagoen araudietara egokitzeko.

Azkenik, DBEaren 2025eko ekitaldirako aurrekontuari buruz txosten bat aurkeztu da. Idazkari nagusiak aurrekontu-partida nagusiak zehaztu ditu eta aurrekontuan aurreko urtearekin alderatuta dagoen igoera justifikatu du: azaldu duenez, igoera hori beharrezkoa da beharrian operatibo eta langileria-arloko beharrian berriak betetzeko. Ez da azaldu gai garrantzitsu gehiagorik; hala, aztertu beharreko puntu gehiagorik gabe amaitu da bilera, 13:30ean.



3 AHOLKULARITZA-JARDUERA

2024an lehenengo urtea bete du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak Euskadin kontrol-agintaritza gisa, Eusko Legebiltzarrean Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legea onartu ostean.

Legegintza-arloan, gertakaririk nabarmenena izan da, zalantzarik gabe, onartu dela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1689 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez adimen artifizialari buruzko arau harmonizatuak ezartzen baitira. Erregelamendu hori 2024ko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrearekin gertatu zen modu berean, asmoa da testu hori erreferentziazko arau bihurtzea, Batasunaren mugetatik harago. Adimen artifiziala laugarren industria-iraultza deritzogunaren barruan funtsezko teknologietako bat da, zeharkako teknologia, jarduera-esparru guztietan duen eraginarengatik; hala eta guztiz ere, ziurgabetasun handiak sorrarazten ditu oinarritzko eskubideen errespetuari dagokionez, eta berebiziko haztaperen-lana egin beharko dute sistema horien zabalkundearen arduradunek eta sistema horien gobernantzaz arduratzen diren instituzioek.

Edonon agertzen ari den adimen artifizialaz gain, Agintaritzari atentzioa eman diote beste garapen teknologiko batzuek. Hala, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak haririk gabeko sareen bidezko jarraipenerako teknologiak (wifi tracking) ere aztertu ditu, eta beste hiru agintaritzekin batera gida bat argitaratu du, teknologia horien erabilera oinarritzko eskubidearekin bateragarri egiteko.

Gainera, EAEko ikastetxeetan korporazio teknologiko handiek eskaintzen dituzten plataformak nola erabiltzen diren ere aztertu da, sakon, hezkuntza-administrazioko arduradunekin batera. Kontrol-jardueraren bidez plataforma horien erabilera ere aztertu da, arau-haustea deklaratzeko prozedura bat izapidetuz, geroago azalduko denez.

Halaber, kriptodiruari truke datu biometrikoen tratamendua (irisa eskaneatzea) egitean datzan ekimen pribatu batek dauzkan arriskuez eta ekimen horri exijitu beharreko baldintzez ohartarazi zuen Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak.

Auzi horiek guztiak, orokorrean, garrantzi handikoak dira, baina herritarrek, aldi berean, beste kezka batzuk dituzte, eta horiek Agintaritzan jasotzen diren erreklamazioetan azaltzen dira. Hala, Agintaritzan 2024an izapidetutako prozedurak aztertuta, zenbait ondorio atera ditzakegu:

Lehenengoz, nabarmendu behar dugu herritarrek kezkatuta daudela inork euren historia klinikoa irispidean izateagatik, hala azaldu baita egin dituzten erreklamazioetan. Urterik urte, gero eta agerikoagoa da osasunari buruzko datuen tratamendua dela herritarrek oinarritzko eskubidearen alderdien artean gehien baloratzen dutenetako bat eta gogorik handienaz babestu nahi dutenetako bat.

Datu biometrikoen tratamenduak, dela instalazioetara, bulegoetara eta abarretara sartzeko sistema gisa, dela polizia-arloko helburuetarako, dela helburu komertzial hutsetarako -lehenago aipatu dugunez-, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren babes-jarduera eskatzen du modu nabarmenean oraindik ere.



Gehien urratzen diren printzipioei dagokienez, izapidetutako arau-hauste prozeduretan, sarritan agertzen dira osotasunaren eta konfidentziasunaren printzipioaren urraketak, gehiagotan hutsegiteen edo ezjakintasunaren ondorioz, nahita egindako arinkeriaen ondorioz baino.

3.1 TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENeko ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEA instituzio gaztea da, eta herritarrengana ahalik eta kanal gehien bidez heltzen saiatzen da. Araututako prozeduretarako (zehapen-prozedurak, arau-haustea deklaratzekoak edo eskubideak babestekoak) eskakizun formal batzuk bete behar dira; hala eta guztiz ere, Agintaritzak aholkua eman behar duenean pertsonentzat kezkarriak edo interesgarriak diren gaiei buruz, formalismorik ezaren printzipioari jarraitzen dio gehienbat.

Hala, pertsona askori aurrez aurre ematen zaie arreta Agintaritzaren egoitzan, eta beste pertsona askok telefono bidezko edo posta elektronikoko bidezko kontsultak egin ostean jasotzen dute aholkua.

2024an, administrazioentzat eta herritarrentzat honako hauek izan dira gairik kezkarrienak: hezkuntza-zerbitzu publikoarekin zerikusia duten datuen tratamendua, arau-hauste penalak prebenitzearekin, zigortzearekin eta ikertzearekin zerikusia duten datuen tratamendua, web-orri instituzionaletan informazio zaharkituak arrazoirik gabe irautea, edo pertsonen osasunari buruzko datuekin egindako tratamenduak kontrolatzeko eskariak.


3.2 KONTSULTAK

DBEak irizpen bidez ebatzen ditu datuen babesari buruz jasotzen dituen galderarik konplexuenak. Agintaritzak aholkularitza-eginkizuna burutzen du abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. artikulua betetze aldera, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:

- kontsultaren gaiak Agintaritzaren legearen aplikazio-eremuan dauden administrazio publiko eta entitateen ardurapeko datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa izan behar du.
- planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburu den tratamenduaren deskribapena egin behar dela, eta Agintaritzak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu behar dela.

2024. urtean, aurreko ekitaldietan bezala, udalek eta foru-aldundiek egin dituzte kontsulta gehienak, eta haien atzetik EAEko Administrazio Orokorrak.

Jasotako kontsulten artean nabarmentzekoa da udal instalazioetara sartzeko sistema biometrikoak ezartzeari buruzko bat.





3.3 IRIZPENAK

Irizpen adierazgarrienak eskuragarri daude Agintaritzaren web-orrian (www.avpd.eus).

- **Hautesle eta hautagai zerrenda batzuen argitalpenen edukia, toki-administrazio baten zerbitzupeko langileen ordezkaritza-organoen hauteskundeak direla-eta (CN24-001)**

Hauteskunde-mahaiek hautesle eta hautagarrien zerrendak argitaratzea eta hautagai-zerrendak argitaratzea lege-eginbehar bat betetzeagatik babestuta dagoen tratamendua da (DBEOren 6.1 c artikulua), hala agertzen baita Funtzionario Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legean, Langileen Estatutuaren Legean eta indarrean dauden garapen-erregelamenduetan. Zerrenda horiek hauteskunde-mahaiek prestatzen ditu, zerikusia duen administrazio publikoak eman behar dion erroldatik abiatuta, eta zerrenda horiek argitaratzen dira hauteskunde-prozesuan parte hartzen duten pertsonen jakinarazteko nor den hautesle eta hautagarri eta nor diren aurkeztutako hautagaiak.

Helburua hori izanik, eta datuen minimizazioaren printzipioa aplikatuta, helburu hori lortzeko ezinbestekoak diren datu pertsonalak argitaratu behar dira, ez datu gehiago. Nahikoa litzateke izen-abizenak eta NANaren zenbakia argitaratzea, DPBEBLOren zazpigarren xedapen gehigarriak dioten moduan. Zerrendak iragarki-oholean argitaratzean, ez dira jarri behar hauteskunde-prozesuarekin zerikusirik ez duten pertsonen ikusteko moduko lekuetan, eta jendaurrean agertuko dira modu efektiboan egikaritu daitezkeen lagundu nahi den eskubideak baliatzeko epemugara arte, ez gehiago.

- **Hartz-marka udal bateko instalazio jakin batzuetara sartzeko autentikazio-mekanismo gisa erabiltzea (CN24-002)**

Udalaren instalazio jakin batzuetara nor sartzen den kontrolatzeko datu biometrikoen tratamendua egitea -bereziki, azterna daktiloskopikoaren tratamendua- ez dator bat datuen babesari buruzko araudiarekin.

Gaur egun datu biometrikoak DBEOren 9. artikuluan azaltzen diren kategoria berezietan sartzen direla kontuan hartuta, arduradunek, halako datuen tratamendua egin aurretik, aztertu beharko lukete tratamendu hori egitea egokia, beharrezkoa eta neurritzkoa al den, lortu nahi den helburua kontuan hartuta.

Historikoki, interpretazio doktrinalen helburua izan da identifikazioaren eta autentikazioaren arteko diferentzia azpimarratzea eta soilik identifikazioaren teknika hartzea kategoria berezietako datuen tratamendutzat, datu biometrikoen tratamendu gisa.

Hala ere, esparru horretan alderdi sozial, teknologiko eta juridikoan testuingurua eta eboluzioa nolakoak diren kontuan izanik, gogoeta horiek zaharkituta daude. Hala, nabarmendu behar dira Datuak Babesteko Europako Lantaldearen 05/2022 Gidalerroetan, aurpegi-ezagutzako teknologia erabiltzeari buruzkoetan egindako ekarpenak. Gidalerro horien 12. apartatuak zehazten duenez, datu biometrikoaren



kontzeptuan autentikazioa nahiz identifikazioa sartzen dira, eta bata zein bestea datu-kategoria berezien tratamenduan sartzen dira.

Interpretazio horiek kontuan hartuta, zera esan daiteke: udal baten instalazio jakin batzuetara sartzeko hatz-marka autentikazio-mekanismo gisa erabiltzean, tratamenduaren xede diren datuak kategoria berezietako datuak izango lirateke; beraz, mota horretako datuen tratamendua lortu nahi den helbururako -hau da, instalazio jakin batzuetara nor sartzen den kontrolatzeko- legitimoa al den aztertu beharko litzateke.

Kontsultaren xede den auzian, tratamenduak gaikuntza ematen duen lege-mailako arau bat izan behar du babes. Horren haritik aztertu behar dugu Konstituzio Auzitegiaren 76/2019 Epaia, maiatzaren 22koa. Epai horretan azaltzen denez, lege-mailako arau bat egotea, berez, ez da nahikoa eta, aitzitik, arau horretan zehaztu egin behar dira oinarritzko eskubidearen mugen inguruabarrak.

Gaur egun, aplikatu beharreko ordenamendu juridikoan, lege-mailako arau batek ere ez ditu betetzen eskakizun horiek. Hau da, presentziaren kontrolerako, datu biometrikoen tratamendua ez du baimentzen legezko arau batek ere, eta gutxiago ere tratamendu horren muga eta bermeak zehazten edo aurreikusgarritasun eta segurtasun juridikoa ekartzen. Gainera, kontuan hartu behar da debeku baten salbuespenen interpretazioa murriztailea izan behar dela beti.

Horregatik, tratamendurako beste oinarri legitimatzaile bat adostasuna izan liteke, DBEOren 9.2.a) artikuluan oinarrituta, baldin eta adostasuna aske eman dela bermatzen bada.

Beraz, zera esan genezake: adostasunaren askatasun-baldintzaren ikuspuntutik, baldintza hori bete ahal izateko, enplegatzaileak -Udalak, kasu honetan- enplegatuei beste aukera baliokide bat eskaini beharko lieke, hain intrusiboa ez den beste aukera bat, datu biometrikorik tratatzen ez duen aukera bat. Izan ere, ezin da ahaztu kasu honetan datu biometrikoen tratamendua bitarteko bat dela instalazio jakin batzuetarako sarbideen kontrola lortzeko, eta ez dela helburu bat berez.

Hala eta guztiz ere, kasu honetan kontuan hartu behar da ezen, tratamendu horrekin lortu nahi den helburua betetzeko beste aukera baliokide bat egonez gero, datu biometrikoak jasotzea gehiegizko tratamendua izango litzatekeela, ez bailuke beteko minimizazioaren eta proportzionaltasunaren printzipioa, ezta lortu nahi den helburua lortzeko beharrezana ere.

- **Lanbiden inskribatutako pertsonen erakunde autonomo horrek esleitutako erreferentziazko profesionalen identitatea komunikatzea (CN24-003)**

Ezarrita dagoenaren arabera, Lanbidek enplegu-zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta dauden eta egoitza EAE-n duten pertsonen esleitutako profesionalen identitatea (izena eta lehen abizena) komunikatzea datu pertsonalen tratamendua da eta, hortaz, datuen babesari buruzko araudiaren mendean dago.

Abenduaren 21eko 15/2023 Legeak, Enpleguarenak, enplegu-politika publikoen printzipio gidariak jasotzen ditu, eta eskubide batzuk onartzen ditu, zerbitzu pertsonalizatua ematea ardatz dela (laguntza pertsonalizatua, enplegarritasunari



buruzko diagnostiko pertsonala egitea, erabiltzailearen partaidetzarekin enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua egitea). Hain zuzen ere, eskubide horiek Lanbideek bermatu beharko ditu. Legeak dioenez, inskribatutako pertsonen erreferentziazko profesional bat esleituko zaie eta profesional horrek legean zehazten diren eginkizunak beteko ditu. Halaber, azaltzen da noiz egin behar den esleipena, eta esleipena interesdunei jakinarazi behar zaiela.

Erreferentziazko profesionala nor den esateak eta, horretarako, izena eta lehen abizena adieraziz profesional hori identifikatzeak, ez du urratzen datuen minimizazioaren printzipioa, modu horretan bete ahal baita ezarrita dagoen xedea, hau da, Lanbidek erreferentziazko profesional horien bitartez laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia ematea, zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen enplegu bat aurkitzeko, enplegaragarritasuna hobetzeko edo lan autonomoko ikuspegiak hobetzeko.

Arduradunak gardentasunaren eginbeharra bete behar du eta, horretarako, erreferentziazko profesionalen tratamendu berriaren berri eman beharko die (inskribatutako pertsonen komunikatzea).

Eta DBEO onartzen diren eskubideen artean nabarmentzen dugu aurka egiteko eskubidea, erreferentziazko profesionalen 21.1 artikuluan azaltzen denaren arabera egikaritu ahal duten hori.

- **Datuak komunikatzea IMI sistemaren bidez (CN24-005)**

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontsultan hainbat galdera egiten da, galdera guztien ardatza honako hau dela: GFAk emandako gidari-kualifikazioaren txartelaren autentikotasuna egiaztatzeko Errumaniako agintaritzari informazioa Barne Merkatuaren Informazio Sistemaren (aurrerantzean IMI Sistema) bitartez transmititzea datuen babesari buruzko araudiaren arabera den ala ez.

GFAk planteatzen duen galdera da, zehazki, beharrezkoa al den interesdunaren adostasuna eskatzea, aztertu ahal izateko ea adostasuna araudiarekin bat datorren ala ez datu pertsonalen tratamendurako legitimazio-oinarri gisa. Bada, horri buruz esan behar da, administrazio publikoen kasuan, orokorrean, desoreka-harreman bat egoten dela administrazio publikoaren eta herritarren artean, eta desoreka horren ondorioz, adostasuna baliozkoa izateko beharrezkoa den askatasun-baldintza ere ez dela betetzen.

Kontuan hartuta tratamendu horrek DBEOren 6.1 artikuluan jasota dauden oinarri juridikoetako baten babespean egon behar duela, kasu honetan zehazki c) letraren babespean egon liteke: «tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko» edo e) letraren babespean ere, hau da, «tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko».

Kasu honetan, aplikatu beharreko araudi sektoriala aztertu ondoren, erabaki da GFA eskuduna dela bere lurraldearen barruan mugikortasunaren eta errepide bidezko garraio mekanikoen arloan, administrazio-eskumena egikaritzea dela tratamenduaren legitimazio-oinarria, eta, gainera, datu pertsonalen tratamendua



egiten dela lege-eginbehar bat betetzeko, lanbide-gaitasunak onartzeari dagokionez administrazioen arteko lankidetzak efikazak lortzeko.

Halaber, GFak tratamendu-jardueren erregistroari buruz arduradun gisa eginbehar batzuk dauzkala azaldu da, hau da, DBEOren 5. artikuluko printzipioak errespetatzea, bereziki gardentasunaren printzipioa.

- **Sarbidea kontrolatzeko hatz-marka bidezko sistema bat ezartzea (CN24-006)**

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak egindako kontsultan hainbat auzi azaltzen dira enpleguak erakunde autonomo horren instalazioetara nola sartzen diren kontrolatzeko hatz-marka bidezko sistema bat ezartzeari buruz. Hala, Agintaritzari galdetu diote ea enplegatuen datu biometrikoen tratamendua ondo ezkontzen den datuak babesteari buruzko araudiarekin.

Datu biometrikoek pertsona fisikoen identifikazioa ahalbidetzen edo egiaztatzen dutenez, datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren menpe daude. Gainera, DBEOren 9.1 artikuluan babes-araubide berezia ezartzen da datu pertsonalen kategoria berezien tratamendurako, eta kategoria horien barruan daude datu biometrikoak. Horren haritik, debekatuta dago pertsona fisiko baten arraza edo jatorri etniko, iritzi politiko, pentsamolde erlijioso zein filosofiko edo sindikatu-bazkidetzari buruzko informazioa ematen duten datu pertsonalen tratamendua, bai eta datu genetikoaren tratamendua eta pertsona fisiko baten identifikazio eskusiboa egiteko erabiltzen diren datu biometrikoen tratamendua ere, eta pertsona fisiko baten osasunari zein bizitza sexualari edo sexu-orientazioari buruzko datuen tratamendua.

9. artikulua berak, 2. apartatuan, debeku orokorrerako salbuespenen kasuak zehazten ditu. Salbuespen horiek kategoria berezietako datuen tratamendurako bidea ematen dute eta, beraz, tratamendurako debekua bertan behera uzten dute. Aurreikusita dauden kasuetako bat da interesdunak adostasuna adieraztea datu horien tratamendua egiteko.

Debekua kentzeko baldintza gisa adostasuna nola ezkondu ahal den aztertzeko, gogora ekarri behar da DBEOk 4.11 artikuluan honela definitzen duela interesdunaren adostasuna: «Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez eginga, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena». Bestalde, DBEOren 43. kontuan hartuzkoak ezartzen duenez, adostasuna askatasunez adierazi dela bermatzeko, adostasuna ez da izan behar datu pertsonalen tratamendurako oinarri juridiko balioduna, argi dagoenean ez dagoela orekarik interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean; bereziki, arduraduna agintaritzak publikoa bada, eta, ondorioz, ia ezinezkoa bada adostasuna askatasunez ematea kasuan kasuko egoera jakinaren inguruabar guztiak aintzat hartuta.

Hau da, administrazio publikoen kasuan, orokorrean, desoreka-harreman bat egoten da administrazio publikoaren eta herritarren artean, eta desoreka horren ondorioz, adostasuna baliozkoa izateko beharrezkoa den askatasun-baldintza ere ez da betetzen.



Beraz, zera esan genezake: adostasunaren askatasun-baldintzaren ikuspuntutik, baldintza hori bete ahal izateko, enplegatzaileak -Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak, kasu honetan- enplegatuei beste aukera baliokide bat eskaini beharko lieke, hain intrusiboa ez den beste aukera bat, datu pertsonal biometrikorik tratatzen ez duen aukera bat. Izan ere, ezin da ahaztu kasu honetan datu biometrikoen tratamendua bitarteko bat dela instalazio jakin batzuetarako sarbideen kontrola lortzeko, eta ez dela helburu bat berez.

Hala eta guztiz ere, kasu honetan kontuan hartu behar da ezen, tratamendu horrekin lortu nahi den helburua betetzeko beste aukera baliokide bat egonez gero, datu biometrikoak jasotzea gehiegizko tratamendua izango litzatekeela, ez bailuke beteko minimizazioaren eta proportzionaltasunaren printzipioa, ezta lortu nahi den helburua lortzeko beharrezana ere.

- **Udalaren kanpoko wifi saretik datozen datuak erabiltzea (CN24-007)**

Udal batek denboran zehar udal WIFI sarera konektatutako gailu mugikorren mugimenduari buruzko informazioa erabili nahi du, hainbat gauza identifikatzeko, hala nola hiri-mugikortasuneko joerak, kanpoko faktoreen arabera (jaiegunak, ekitaldi bereziak...) hainbat zonatan egon daitezkeen jende-pilaketak, kanpainen edo bestelako parametroen mende egon daitezkeen merkataritza-zonak. Bere kontsultan galdetzen du ea egin nahi duen hori datu pertsonalen tratamendua den, eta alde horretatik ea datu pertsonalak babesteko araudia aplikatzen zaion.

Halako prozesuetan erabilitako Wi-Fi seinaleek transmititutako datuak datu pertsonaltzat jo daitezke, pertsona identifikagarriekin lotuta daudelako eta pertsona horiek zuzenean edo zeharka identifikatzeko erabil daitezkeelako. Zehazki, kasu honetan, datu horiek gailuaren identifikatzailea edo MAC helbidea, data/ordua eta kokalekua izango lirateke.

Udal Wifi sareak gailuen informazioa jaso edo biltzea datu pertsonalen tratamendua da. Halaber, datu pertsonalen tratamendua da anonimizazio-prozesua bera ere, bai eta berridentifikatzeko arriskua benetan gauzatuz gero datuak kontsultan azaldutako xedeetarako erabiltzea ere.

Datu pertsonalen tratamendua dagoen neurrian, arduradunak DBEOn ezarrita dauden printzipioak bete beharko ditu, zehazki zilegitasunarena, helburua mugatzearena eta kontserbazio-epea mugatzearena. Zilegitasunaren printzipioa betetzeari buruz, tratamendu bakoitzari aplikatu beharreko oinarri legimitatzailea bete dadin, tratamenduaren arduradunak kasu bakoitza xehetasunez aztertu behar du, erantzukizun proaktiboaren printzipioaren arabera (DBEOren 5.2 artikulua); bada, kasua aztertzean tratamenduaren izaera, esparrua, testuingurua eta xedeak kontuan hartu beharko dira.

DBEOren 35.3 artikulua arabera, Wi-Fi tracking teknologia duten tratamenduetan eta, zehazki, tratamendu horretan sarbide publikoa duen zonalde baten behaketa sistematikoa egin behar bada eskala handian, DBGEB egitea nahitaezkoa izango da.



Egokiak diren neurri tekniko eta antolakuntzakoei dagokienez, irizpena kontrol-agintaritzek argitaratutako orientabideei lotzen zaie, eta anonimizazio-prozesuari garrantzirik handiena ematen dio.

3.4 TXOSTENAK

2024. urtean, txostenak egin dira hamabi dekretu-proiekturi eta bost hitzarmeni buruz:

- Dekretu-proiektua, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari eman beharreko erantzuna arautzen duena.
- 2024ko Urteko Estatistika Egitarauari buruzko dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Balioespenerako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordearena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroa sortzen duen eta haren erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko instalazioen erabilera arautzen duena, Musikeneko urteko programazioetan sartzen ez diren jardueretarako.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Merkatarien Elkarteen Erregistroa sortu eta arautzeari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzen duen eta merkataritza-laguntzako zerbitzu-zorroa zehazten duena.
- Dekretu-proiektua, adikzioei buruzko informazio-sistema sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatzeko enplegu-pizgarriak arautzen dituen.
- Agindu-proiektua, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan EAE sektore publikoko zerbitzu eta prozeduren katalogo korporatiboa arautzekoa.
- Agindu-proiektua, ziurtagirietan oinarritutako sinadura elektronikoko politika onartzekoa.
- Agindu-proiektua, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erregistro elektronikoko orokorra arautzekoa.
- Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren eta EAEn arteko lankidetzahitzarmena, elkarri administrazio elektronikoko oinarritzko soluzioak emateko.



- EAEko Administrazio Orokorraren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Gaztela eta Leoneko Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetza-hitzarmena, osasun-laguntzaren arloan.
- EAEko Administrazio Orokorraren eta Osasun Zientzien Aragoiko Institutuaren arteko lankidetza-hitzarmena, ikerketa-proiektuetan parte hartzeko.
- EAEko Administrazio Orokorraren eta Valentziako Unibertsitatearen arteko lankidetza-hitzarmena, haurren tumoreen erregistroaren arloan.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren eta EAEko Administrazio Orokorraren arteko lankidetza-hitzarmena, Osasun Zerbitzu Publikoek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Itsasoko Gizarte Institutuaren administrazio-espedienteetako txosten medikoak telematikoki irispidean izateko.

3.5 BATZARRAK

Jarraian azalduko dugu Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak 2024. urtean zein batzarretan hartu duen parte, besteak beste.

- Osakidetza: azpimarratu du bi enteen arteko lankidetza eta laguntza indartzea beharrezkoa dela, bai Osakidetzari eragiten dioten espedienteak izapidetzeko, bai osasun-esparruan datuen babesaren arloko jardunbide egokiak garatzen laguntzen duten dokumentuak prestatzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila: batez ere, hezkuntza-plataformen erabilerari buruzko gaiak aztertu dira.
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila: polizia-bideozaintzako gaiak aztertu dira, bai eta esparru horretan ezerezteko eskubidea egikaritzeari buruzkoak ere.
- Basque Artificial Intelligence Center (BAIC): adimen artifizialaren arloan Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren eta Basque Artificial Intelligence Centerren arteko elkarlana ezartzea aztertu da.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila: euskal sektore publikoaren esparruan euskararen erabileraren indizea identifikatzeko irtenbide teknologiko bat datuen babesaren arloko araudiarekin bat zetorren aztertu da.
- Ararteko: lankidetza-hitzarmen bat sinatzea aztertu da.
- Datuak Babesteko Agintaritzen batzarra Gasteizen, segurtasun-arrakalen kudeaketa aztertzeko.
- Datuak Babesteko Agintaritzen batzarra Madrilen, tratamenduaren arduradunei zehapenak ezartzea aztertzeko.
- Kontrol-agintaritzen batzarra, wifi jarraipeneko teknologien erabilerari buruzko gida bat prestatzeko.



- Batzarrak Cyberzaintzarekin: segurtasun-arrakalak modu efizientean kudeatzen lagunduko duten materialak prestatzeko eta segurtasun-arrakala izan daitezkeen kasuak DBEArri helarazteko bi enteen arteko elkarlana ezartzea aztertu da.





4 KONTROL-JARDUERA

Datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea babesten da prebentzio- eta zabalkunde-politikaren bidez, eta kontrol-jarduera eginez ere bai, dela Agintaritzaren kabuz, dela erreklamazioak jaso ostean (salaketak edo eskubideen babeserako eskariak).

Salaketak jasotzean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak zehatzeko ahala egikaritzen du, bere jarduera-eremuaren barruan dauden instituzio eta entitateek oinarritzko eskubidea betetzen dutela bermatzeko.

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak oinarritzko eskubidea osatzen duten eskubideak (datuak irispidean izatea, zuzentzea, ezerezte, tratamenduaren aurka egitea, tratamendua mugatzea eta datuak transferitzea) babesteko organo gisa jarduten du, erreklamazioak ebazten direnean lehenago tratamenduaren arduradunen aurrean eskubideak egikaritu direlako. Erreklamatzailen ustez bete ez diren edo behar bezala bete ez diren eskubideak egikaritzea.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eginkizun asko eta ahal zabalak esleitzen dizkie kontrol-agintaritzak guztiei, adibidez, ikerketa-ahalak eta ahal zuzentzaileak; horretarako, arau-hausteak eta ezar daitezkeen zehapenak edo jarduera zuzentzaileak arautzen ditu.

Aitzitik, botere horiek kontrol-agintaritzari laguntzeko eginbeharra dakarte; gure kasuan, eginbehar hori Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 13. artikuluan zehazten da. Artikulu horrek xedatzen duenez, administrazio publikoek, foru-ogasunak barne direla, bai eta pertsona fisikoek edo juridikoek ere, haien tratamenduak lege horretan xedatutakoaren mende egon zein ez, nahitaez eman beharko dizkiote Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari bere ikerketa-jarduera egoki egiteko behar dituen datuak, txostenak, aurrekariak eta egiaztagirak.

Erreklamazioa jaso duten instituzio eta entitateek laguntza egokia eman dute, orokorrean; hala ere, batzuetan, Agintaritzak behin eta berriz eskatu behar izan du informazioa, baita ohartarazi ere ezen, Datuak Babesteko Agintaritzari ez laguntzea jokabide zehagarria dela, DBEOren eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Laguntzeko eginbehar horri dagokionez, zera esan behar da: Agintaritzaren 2023. urteko memorian, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari buruz aipamen negatiboa egin zen, baina 2024ko azken hilabeteetatik gaur egunera arte egoerak hobera egin du.

4.1 ESKUBIDEEN BABESA

2023an gertatu zen bezala, 2024an, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan aurkeztutako babes-erreklamazio asko zati batean baietsi dira; izan ere, ukitutako eskubidea bete arren, epez kanpo bete dute, horretarako lege ezarritako epea gainditu ondoren. Hain zuzen ere, batzuetan, Agintaritzan erreklamazioa aurkeztea arduradunentzat pizgarria izan da, eskubideak egikaritzearekin lotutako eskariak betetzeko.



Alde horretatik, aurten ere tratamenduaren arduradunei gogora ekarri behar zaie eskubidea epez kanpo betetzea oinarritzko eskubidea urratzea dela. Egoera hori are larriagoa da kontuan hartzen badugu irispide-eskubideak, ezerezteko eskubideak eta gainerakoek eskubidearen funtsezko edukia osatzen dutela, beraietan argi eta garbi agerian geratzen baita informazio pertsonala eskuera izateko ahalmena.

Herritarrek egikaritu dituzten eskubide-motei dagokienez, esan dezakegu jasotako erreklamazioen artean hiru gai izan direla nagusi: historia klinikoetan agertzen diren datuak irispidean izateko eta ezerezteko eskariak, polizia-datuak irispidean izateko eta ezerezteko eskariak eta web-orrietan argitaratutako informazioak ezerezteko (ahaztua izateko) eskariak.

Lehenengo kasuan, sarritan irispidea izateko eskariak egiten dira inork datuak irispidean bidegabeki izan dituela-eta kontrola izateko, edo pertsonentzat iraingarri suerta daitekeen informazio sentikorra ezabatu nahi delako. Polizia-datuekin zerikusia duten eskarietan, informazioa ezabatzea da asmoa, informazio horrek agertzen jarraituz gero pertsonentzat ondorio kaltegarriak sor badaitezke ere. Web-orrietan argitaratzen diren erreklamazioei dagokienez, argi dago ezabatu nahi dela bilaketa-motorrek hirugarrenentzat oso modu errazean irisgarri bihurtzen duten informazio zaharkitua edo alferrikakoa.

Baiespenen kopuruari dagokienez, esan dezakegu aurkeztutako eta onartutako babes-erreklamazioen % 71 baino gehiago baietsi direla eta, horien artean, ia-ia % 40 Osakidetza-EOZi buruzkoak direla.

2024ko datuak: Baiesteko 14 ebazpen, artxibatzeke 3 ebazpen, ezesteko 7 ebazpen, ez onartzeko 5 ebazpen, AEPDren eskumenekoa den 1 ebazpen eta ixteko 1 eginbide. (Ebatzitakoak, guztira: 31).

Hona hemen 2024an ebatzitako babes-eskariak.

4.1.1 Irispide-eskubidea

- **Osakidetza-EOZen dagoen historia kliniko batera irispidea izatea (ET23-016)**

Erreklamazio-idazkian azaltzen denez, erreklamatzailerak bere historia klinikora irispidea izateko eskubidea egikaritu du, zehazki, 2022. eta 2023. urteei dagokienez, baina eskaera hori ez dute bete.

Erreklamazioa baietsi da, Osakidetza-EOZek eskaera hori ez duelako bete lege ezarritako epean, eta soilik 2021. eta 2022. urteetan izandako irispideak bidali zaizkiolako, eskatutako 2023ko hilabeteak alde batera utzita.

Berraztertzeke errekurtsua aurkeztu da (RR20-002) baina ezetsi egin da.

- **Polizia-fitxan egindako kontsultak irispidean izatea (ET23-019)**

Ezetsi da erreklamatzailerak egikaritutako irispide-eskubidea ukatzeagatik Segurtasun Sailaren kontra aurkeztutako erreklamazioa, erreklamatzailerak ez duelako zehaztu zein daturi buruz egikaritu duen irispide-eskubidea.

Berraztertzeke errekurtsua aurkeztu da, baina ezetsi egin da, errekurtsogileak ez duelako zehaztu zein daturi buruz egikaritu duen irispide-eskubidea.



- **Errola-zurtagiria irispidean izatea ukatzea (ET23-020)**

Erreklamatzailaren asmoa da errola-zurtagiria jasotzea. Egia da zurtagiri horiek egiteko datu pertsonalen tratamendua egin behar dela, baina kasu honetan erreklamazioak ez du zerikusirik araudiak arlo horretan interesdunei onartzen dizkien eskubideak egikaritzearekin. Zentzu hertsian, erreklamazioaren gaia da ea baldintzak betetzen diren udalak errola-zurtagiria egiteko, eta hori ohiko legezkotasun auzi bat da, administrazio-zuzenbidearen mendekoa, eta beraz, datu pertsonalen babesari ez dagokio. Azkenik esan behar da, Bilboko Udalak dioenez, eskaria onartu duela eta erreklamatzailari errola-zurtagiria eman diola. Hori guztia kontuan hartuta, aurkeztutako babes-eskaria ez da onartu.

- **Udal bateko Gizarte Zerbitzuen esku-hartze parteak irispidean izatea (ET23-022)**

Pertsona batek eskatu du Abanto-Zierbenako Udaleko gizarte-zerbitzuek haren seme-alabei buruz egindako esku-hartzeen parteak irispidean izatea. Erreklamazioa ez da onartu, kasu honetan egikaritu den eskubidea ez baita DBEOko irispide-eskubidea, baizik eta espedienteak irispidean izatekoa, 39/2015 Legean arautzen den hori; horregatik, lege horren manuen arabera egin behar dira eskubide horri buruzko eskariak. Eskubide hori ebaztea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari, Abanto-Zierbenako Udalarari berari baizik, espediente bat irispidean izatean datzalako auzia. Egintza horren aurka errekurtsioa aurkez daiteke administrazio-bidean edo auzien jurisdikzioan.

- **Polizia-datuak irispidean izatea (ET23-025)**

Datuak babesteko araudiak ezartzen duenez, erreklamatzailak, irispide-eskubidea egikaritzuz, jakin ahal du zein datu pertsonal dauzkan tratamenduaren arduradunak, eta eskubide hori egikaritzeko prozeduran lehenengoz tratamenduaren arduradunarengana jo behar da; hau da, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera jo behar da, irispide-eskubidea aldarrikatuz. Segurtasun Sailak hilabeteko epean erantzuten ez badu edo, erreklamatzailaren ustez, jasotako erantzuna gogobetegarria ez bada, orduan erreklamazioa aurkeztu ahal dio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari, instituzio horrek irispide-eskubidea babes dezan.

Horrenbestez, erreklamazioa ez da onartu, eta erreklamatzailari eskatu zaio lehenago Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera jo dezala, azalduko prozedurari jarraituz.

- **Historia klinikoa irispidean izateko eskubidea urratzea (ET23-026)**

Erreklamatzailak Osakidetxari eskatu dio bere historia klinikoa irispidea izan dutenen erregistroa irispidean izatea. Erreklamazioa baietsi da, irispidea izateko eskubidea epetik kanpo artatu delako. Halaber, Osakidetxari errekerimendua egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek pertsonei onartzen dizkien eskubideak egikaritzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.



- **Historia klinikoa irispidean izateko eskubidea urratzea (ET24-003)**

DBEAn erreklamatu da historia klinikora irispidea izateko eskubidearen babesa; zehazki, dioenez, bere historia klinikotik ebolutibo edo gertakari zehatz bat ezabatu diote eta horren berri izan nahi du, baita zergatik ezabatu dioten jakin ere; gainera, Osakidetzan hiru aldiz eskatu du informazio hori.

Erreklamazioa baietsi da, irispidea izateko eskubidea ez delako artatu. Halaber, tratamenduaren arduradunari errekerimendua egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak pertsonen onartzen dizkien eskubideak egikaritzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

- **Osakidetza-EOZen dagoen historia kliniko bat irispidean izatea (ET24-004)**

Pertsona batek Agintaritzan babes-eskubidea egikaritu du: Osakidetza behin eta berriz eskatu dio historia klinikoa, baina eskari hori ez dute behar bezala bete, erreklamatzailerak espresuki diolako hainbat dokumentu ez zaizkiola bidali.

Babes-erreklamazioa baietsi da eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eskatu zaio ebazpena jakinarazi eta hurrengo hamar egun balioduneko epean eskatutako dokumentuak -ebazpenaren III. oinarri juridikoan zehazten direnak- bidal diezazkiola alderdi erreklamatzailerari. Azaldu zaio ebazpenaren ondorioz egiten diren jarduketak Agintaritzari komunikatu behar zaizkiola epe berean. Gainera, ohartarazi zaio Agintaritzaren ebazpena ez betetzea DPBEBLOren 72.1m) artikuluan ezarritako arau-haustea izan daitekeela (datuak babesteko agintaritzak batek emandako ebazpena ez betetzea), eta eskatu zaio aurrerantzean Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 12. artikuluan ezarritako baldintzak bete ditzala.

- **Bizkaiko Abokatuen Elkargoak dauzkan datu pertsonal batzuk irispidean izatea (ET24-007)**

Erreklamatzailerak eskatu du Bizkaiko Abokatuen Elkargoari eskatutako irispide-eskubidearen babesa. Alegatu duenez, irispidea izateko eskaria ukatu dute.

Ezestea ebatzi da, Elkargoak frogatu baitu eskariari erantzun diotela eta eskaria bete dutela. Elkargoak komunikatu du ez daukatela erreklamatzaileraren datu pertsonalik.

- **Datuak irispidean izateko eskubidea eta ezerezteko eskubidea urratzea (ET24-008)**

Alderdi erreklamatzailerak Agintaritzak honetara jo du bere irispide-eskubidearen babesa eskatzeko, bere iritziz Gasteizko Udalak ez diolako eman Berdintasun Zerbitzuan eman zioten laguntzari buruz daukan informazio pertsonal guztia. Erreklamaturako administrazioak argudiatu duenez, erreklamatzaileraren informazio pertsonala ez diote eman, soilik lanpostuaren titularrak hainbat datatan eskuz idatzitako oharra eta apunteak jasotzen direlako eta dossier horrek barnean



ez duelako espediente egituraturik, ezta ondoriorik edo egin beharreko ekintzen proposamenik ere.

Agintaritzaren iritziz, argudiatutako inguruabar horiek ezin dira oztopo izan erreklamatzailerak bere datu pertsonalak irispidean izan ditzan DBEOren 15. artikulua dioenaren arabera. DBEOren 15.3 artikuluan ezartzen denez, tratamenduaren arduradunak tratamenduko datu pertsonalen kopia bat emango du baina, DBEOren 15.4 artikuluan zehazten denez, horrek ez du eragin negatiborik sortuko beste batzuen eskubide eta askatasunetan. Erreklamazioa baietsi da, irispide-eskubideari dagokionez.

Alderdi erreklamatzailerak Agintaritzara jo zuen bere ezerezteko eskubidea ere babesteko, datu pertsonal horiei beraiei dagokienez. Erreklamazioa baietsi da eskubide horri dagokionez, arduradunak eskubide hori epe barruan bete duelako datu pertsonalak 3 urteko epe baterako blokeatu ondoren, DPBEBLOren 32. artikuluan zehazten denez; horrez gain, Udalak azaltzen duenez, neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak hartu ditu datuak tratatzea eragozteko, datuak bistaratzea ere kontuan hartzen dela.

- **Irispide-eskubidea eta beste batzuk egikaritzean jasotako erantzunarekin ados ez egotea (ET24-010)**

Erreklamatzailerak ez dago ados Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eskubideak egikaritzeari buruz emandako erantzunarekin; hala ere, Eusko Jaurlaritzari eskatutako informazioa ikusita, ebatzi da erantzun hori datuen babesari buruzko araudiaren araberrakoa dela; beraz, aurkeztutako erreklamazioa artxibatu da.

- **Historia klinikoa irispidean izateko eskubidea urratzea (ET24-012)**

Erreklamatzailerak bere alegazioetan dioenez, Osakidetza bidali dion dokumentua irakurtezina da, irispide batzuk inkoherenteak dira eta irispidea izan duten pertsonak ez dira identifikatzen.

Irakurtezintasunari dagokionez, dokumentua instituzio horrek irispidea izateko eskariei erantzuteko erabili ohi duena da. Irispideen inkoherentziari dagokionez — erreklamatzailerak ez du identifikatzen zein irispide—, adierazi zaio tratamenduaren arduradunarengana jo behar duela, hau da, Osakidetza, irispideei buruzko informazioa jasotzeko.

Gaur egun, estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-arloko araudian ez da esplizituki onartzen irispide-eskubidearen barnean sartzen denik historia klinikoa irispidean izan duten osasun-arloko profesionalak identifikatu ahal izatea.

Azkenik, 2023ko azarotik aurrera irispidea izan dutenen berri izateko eskariari dagokionez, erreklamatzailerak eskaria Osakidetza egin behar dio, lehenago egin zuen bezala, irispide-eskubidea egikaritzeko aldi berria izan delako.

Horrenbestez, Osakidetza datuak babesteko araudia urratzeari dagokionez ezer leporatzekotan, hilabeteko epearen barruan erantzun ez izana leporatu ahal zaio. Izan ere, erreklamatzailerak irispidea izateko eskaria 2024ko martxoaren 20an egin



zuen, eta informazioa 2024ko maiatzaren 20an eman zitzaien. Beraz, agerian dagoenez, interesdunak azkenean eskatutako informazioa jaso arren, eskubidea ez da bete DBEOren 12.3 artikuluan ezarritako hilabeteko epean. Beraz, erreklamazioa baietsi da, erreklamatzailerak egikaritutako irispide-eskubidea garaiz kanpo bete delako.

- **Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen agirietara irispidea izatea (ET24-014)**

Erreklamaturako babesa ez da onartu, egiaztatu baita erreklamatzailerak administrazio-prozedura batean jasotako dokumentuetara irispidea izateko eskubidea egikaritu nahi duela, eta hori 39/2015 Legearen 53.1 artikuluan arautzen dela.

Beraz, eskubide hori egikaritzeari buruzko ebazpena ematea ez dagokio Agintaritzari, baizik eta GOFeri berari. DBEak egindako informazio-eskaeraren ondorioz, GOFek alegatzen du eskatutako dokumentazioa entregatu zuela hirugarrenen datu pertsonalak anonimizatuta.

- **Telefono-grabazioak irispidean izatea (ET24-024)**

Erreklamazioa aurkeztu da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurka: telefono-grabazio batzuk irispidean izateko eskatu du, eta irispidea onartu diote, baina DBEOn ezarritako epekan kanpo.

Baietsi da alderdi formalean, baina ez alderdi materialean, egindako erreklamazioa, telefono-deiaren grabazioa bidaliz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak irispide-eskubidea artatu zuen arren lege ezarritako epekan kanpo egin duelako hori.

4.1.2 Ezerezteko eskubidea

- **Osakidetzan dauden datu pertsonalak ezereztea (ET23-014)**

Erreklamatzailerak bere datuak ezerezteko eskatu dio Osakidetzari. Hala ere, ez du egiaztatu aurretiaz eskubide hori Osakidetzan egikaritu duenik; beraz, DBEak eskatu du informazio hori. Eskatutako informazioa jaso ez denez, espedienteak ezin du aurrera jarraitu eta, ondorioz, ixteko eginbide baten bidez artxibatu da.

- **Polizia-aurrekariak ezereztea (ET23-023)**

Ezetsi da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak onartu ez duen ezerezteko eskubidea babesteko eskaria, 7/2021 Lege Organikoaren 24. artikuluen arabera lege justifikatuta geratzen delako ukatu behar dela eskatutako datuak ezerezteko.



- **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko argitalpen bat ezereztea (ET23-024)**

Erreklamatzailleak DBEaren babesa eskatu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurka, GAO n argitaratutako datuak ezerezteko eta ahaztua izateko eskubidea ukatu diotelako; halaber, desindexatzeko ez ezik, Aldizkaria bera ezabatzeko eskatu du.

Erreklamazioa zati batean baietsi da. Izan ere, datuak ezin dira iturritik ezereztu, hain zuzen ere ahaztua izateko eskubidea iturria ukitu gabe datuetarako irispidea mugatzean datzalako, martxoaren 27ko 5/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala arautzekoaren 5.3 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera. Horregatik, datuak desindexatu behar dira, hain zuzen ere ezerezteko eta ahaztua izateko eskubidea egikaritzea eta aldizkari ofizialen osotasuna uztartzea ahalbideratzen duen neurria.

Halaber, tratamenduaren arduradunari errekerimendua egin zaio, beharrezkoak diren neurriak har ditzan, Interneteko bilaketa-motor orokorretatik nahiz Aldizkari Ofizialaren edizio digitaleko bilaketa-motorretatik informazio pertsonala desindexatu dela bermatze aldera.

Erreklamatzailleak berraztertzeke errekurtsua aurkeztu du baina ezetsi egin da, ebazpena zuzenbidearen arabera dela ulertzeagatik.

- **Bilboko Udalaren aparkaleku zerbitzuaren posta elektronikoko helbidetik zenbait mezu jasotzea (ET24-002)**

Erreklamatzailleak salatu duenez, zerbitzu horren posta elektronikoko helbidetik zenbait mezu jaso ditu alta emanda egon gabe, eta ezerezteko eskubidea egikaritu nahi du. Hala ere, Udalak modu sinesgarrian frogatu du alta emanda dagoela; beraz, posta elektronikoko mezuak bidaltzeko legitimazio-oinarria dago: hau da, interesduna parte den kontratu bat gauzatzea. Dena dela, Udalak, DBEaren informazio-errekerimendua jaso ondoren, horren bidez jakin baitu erreklamatzailleak posta elektronikoko mezu gehiagorik jaso nahi ez zuela, baja eman dio erreklamatzailari aplikazioan, eta hala komunikatu dio; beraz, praktikan, erreklamatzailaren eskaria bete egin da. Laburbilduta, eskubideak urratu direnik ikusi ez denez, erreklamazioa artxibatu da.

- **Prestakuntzako material batean dauden datu pertsonalak ezereztea (ET24-013)**

Erreklamatzailleak DBEara jo du, Bizkaiko Foru Aldundiak ezerezteko eskubidea ukatu diolako. Erreklamatzailleak bere datu pertsonalak (irudia eta ahotsa) ezerezteko eskubidea eskatu du, prestakuntza-ikastaro bat emateko tratatu zirelako. Zehazki, ezerezteko eskatu du DBEOren 21.1 artikulua oinarri hartuta (datuen tratamenduaren aurka egitea).

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, eta Bizkaiko Foru Aldundiari exijitu zaio interesdunari jakinaraz diezaiola ezerezteko eskubidea benetan bete dela.



- **Datuak ezerezteak (ET24-016)**

Bilboko Udalaren aurka erreklamazio bat aurkeztu da, ezerezteko eskubidea egikaritzearen ondorioz. Erreklamatzailerak dioenez, Bilboko Udalari eskabide bat aurkeztu dio, Interneten libreki ageri diren datu pertsonal jakin batzuk ezabatzeko eta, erantzunik jaso ez duenez, Agintaritzak esku har dezala eskatu du, datu horiek (erreklamazioan zehazten ditu datuok) ageri ziren tokietatik ezabatzeko.

Erreklamatzailerak aurkeztutako erreklamazioa formalki baietsi da, erreklamazioari erantzuna eman arren ez delako bete DBEOren 12.3 artikuluan ezarritako epea. Halaber, tratamenduaren arduradunari errekerimendua egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean pertsonen onartzen zaizkien eskubideak egikaritzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

- **Webgune batean argitaratutako datuak ezerezteko eskubidea (ET24-020)**

Alderdi erreklamatzailerak aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, ezerezteko eskubidea lege ezarritako epekan kanpo artatu delako Zumaiako Udalak. Halaber, Udalari errekerimendua egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean pertsonen onartzen zaizkien eskubideak egikaritzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Espedientean agertzen den informaziotik ondorioztatzen denez, ezerezteko eskubidea, erreklamatzailerak egikaritutako eskubide hori, bidez bete egin da, berandu izan arren.

- **Webgune batean argitaratutako datuak ezerezteko eskubidea (ET24-021)**

Alderdi erreklamatzailerak aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, ezerezteko eskubidea lege ezarritako epekan kanpo artatu delako. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari errekerimendua egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean pertsonen onartzen zaizkien eskubideak egikaritzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Espedientean agertzen den informaziotik ondorioztatzen denez, ezerezteko eskubidea, erreklamatzailerak egikaritutako eskubide hori, bidez bete egin da, berandu izan arren.

- **Udalaren alerta-zerbitzuan dauden datu pertsonalak ezerezteak (ET24-023)**

Erreklamatzailerak eskatu du Irunekeko Udalak kudeatzen duen mugikorretarako SMS bidezko alerta-zerbitzuan berari buruz dauden datu pertsonalak ezerezteko.

Erreklamazioa ezetsi da. Datuak ezin dira ezereztu, ez daudelako erregistratuta alerta-zerbitzua harpidetuta duten pertsonen zerrendan.





- **Polizia-datuak ezerezteak (ET24-025)**

Erreklamatzailleak DBEAren babesa eskatu du, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari polizia-datuak ezerezteko eskatu dion arren eskubide hori ukatu diotelako.

Ezetsi da erreklamazioa. Izan ere, aurrekariak eta espedientean agertzen diren dokumentuak aztertutakoan, eta kasu horretan gertatzen diren inguruabar zehatzak kontuan hartuta, bidezkoa da erreklamatzaillearen polizia-aurrekariak ezerezteari uko egitea, ez dagoelako justifikatuta DBEOren 17. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat ere gertatu denik eta egiaztatuta geratu delako 17.3 b) artikuluko salbuespena: lege-betebehar bat dago, Armen Erregelamendua onartzen duen urtarilaren 29ko 137/1993 Errege Dekretuak eta Herriarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoak ezartzen duten betebeharra, alegia.

4.1.3 Zuzentzeko eskubidea

- **Historia klinikoa zuzentzeko/ezerezteko eskubidea urratzea (ET24-001)**

Erreklamatzailleak DBEAri eskatu dio zuzentzeko eta ezerezteko eskubidearen babesa, Osakidetzak uzi hori ukatu diolako. Hain zuzen ere, Osakidetzak alegatu du ez dela bidezkoa, gestio egokiak egindakoan. Agintaritzak ez dauka eskumenik zehazteko ea datu mediko zehatz batzuk beharrezkoak diren pazienteari agian etorkizunean emango zaion laguntzarako; aldiz, eskumena dauka baloratzeko txostenen bat falta dela, historia klinikoaren zati hori kontserbatzeko beharrezko gutxieneko xehetasun batzuekin azalduko duen txosten bat, alegia.

Agintaritzak informazio-errekerimenduak egin ditu behin eta berriz, baina administrazioak ez du erantzunik eman; hortaz, aurkeztutako babes-erreklamazioa baietsi da, administrazioak ebazpen arrazoitua eman dezan erreklamatzailleak egikaritutako ezerezte eta zuzenketari buruz, eta Osakidetzari errekerimendua egin zaio, ebazpen hori erreklamatzailari eta Agintaritzari bidal diezaien.

- **Polizia-datuak zuzentzea (ET24-006)**

Erreklamatzailleak DBEAren babesa eskatu du, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren erregistroetan bere polizia-aurrekariari buruz agertzen diren datu okerrak batzuk zuzentzeko eskubidea ukatu diotelako.

Ezetsi da erreklamazioa. Izan ere, aurrekariak eta espedientean agertzen diren dokumentuak aztertutakoan, ez da egiaztatuta geratu datu okerrak edo osatugaberik dagoenik.

- **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren datu-baseetan posta-helbidea zuzentzeko eskubidea (ET24-009)**

Kasu honetan ez da datu pertsonalen tratamendurik egon. Aitzitik, legezkotasun arrunteko gai bat daukagu aurrean, hau da, administrazio-izapide bat konpontzea. Hain zuzen ere, hori ebazteko, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea eta aplikatu beharreko araudia hartu behar dira kontuan. Alde



horretatik, DBEArri ez dagokio irizpena ematea, ea Hezkuntza Sailak zuzen jokatu duen erreklamatzailerak eskatutako posta-helbide aldatetari uko egitean, indarrean dagoen errolda-ziurtagiri bat ez aurkezteagatik. Nolanahi ere, posta-helbidea aldatzeko eskaria ukatzen duen administrazio-egintzaren aurrean, erreklamatzailerak errekursoak jar ditzake administrazio-araudiaren arabera. Beraz, erreklamazioa artxibatu da.

- **Historia klinikoa zuzentzeko eskubidea urratzea (ET24-011)**

Erreklamatzailerak babesa eskatu dio DBEArri: Osakidetza-EOZek ukatu egin du espezialitate mediko jakin bateko mediko batek egindako txosten klinikoa -historia klinikoa agertzen den bat- zuzentzeko eskubidea.

Erreklamazioa ezetsi da: zuzenketa egiteko eskatu zaion medikuak bera egiten ari den tratamenduak soilik aipa ditzake, hain zuzen ere bere ezagutzarengatik aipa ditzakeen horiek, eta bere txostenetan ezin du beste laguntzarik baloratu, ezta aipatu ere, baldin eta laguntza horiek berak eman ez baditu edo halakoak tratatzen ari ez bada (hain zuzen ere, tratamendua arlo horretan espezialista den beste mediku batek eman dio).

- **Hildako amaren historia klinikoa zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea urratzea (ET24-015)**

Erreklamatzailerak babesa eskatu dio DBEArri, hildako amaren historia klinikoa agertzen diren datu jakin batzuk zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea ukatu diotelako. Osakidetza eskubide hori ukatu dio: bere iritziz, guztiz pertsonala den eskubidea da eta, beraz, pertsona hiltzean azkentzen da.

Erreklamazioa baietsi da: DPBEBLOren 2.2 artikuluan, hasieran, hildako pertsonen datuak baztertzen dira datuen babesetik, baina 3. artikuluan hainbat egoera arautzen dira, zeinetan egintza jakin batzuk egin ahal baitira datu horien tratamenduari dagokionez. 3. artikuluan espresuki ezartzen denez, hilarekin familia-lotura edo izatezkoa dutenek, edo haren jaraunsle direnek tratamenduaren arduradunarengana edo eragilearengana jo ahalko dute hilaren datu pertsonaletara irispidea izateko eta, hala badagokio, datuak zuzendu edo ezerezteko. Beraz, manu horrek datuak irispidean izateko eta, hala badagokio, datuak zuzendu edo ezereztu daitezela eskatzeko legitimazioa ematen die hildako pertsonarekin lotura duten pertsonari -hala gertatzen da kasu honetan-, eta zuzentzeko eta ezerezteko eskubidearen norainokoa eta mugak (eta, hala badagokio, ahaztua izateko eskubidearenak) arautzen dituzten xedapenak DBEOn bizirik dauden pertsonentzat ezartzen diren berberak dira. Arau orokor horretarako, salbuespen bakarra ezartzen da 3.1 artikuluko bigarren paragrafoan: hilarekin lotura duten pertsonak ez dute datuetarako irispiderik izango eta ezingo dute datuak zuzendu edo ezerezteko eskatu, hilak berariaz debekatu badu edo lege batek horrela xedatzen badu.



4.2 SALAKETAK

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zehatzeko ahalaren mendeko administrazio, instituzio eta entitateek egiten dituzten jardueri buruz pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira.

Onartutako salaketak arau-hauste prozedura bihurtu dira edo artxibatu egin dira, ez dagoelako prozedura hori hasteko nahikoa arrazoirik.

4.2.1 Onartu gabeko salaketak

2024an salaketa ugari ez ditugu onartu, pertsona fisikoei buruzkoak eta izaera juridiko pribatuko entitateei buruzkoak izateagatik, eta halakoak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontroletik kanpo egoteagatik. Halakoak Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali genituen (DN24-035, DN24-039, DN24-066, DN24-038, DN24-024, DN24-028, DN24-056, DN24-057, DN24-065, DN24-082, DN24-032, DN24-020, DN24-075, DN24-016, DN24-026, DN24-029, DN24-054).

Beste hamasei salaketa ez dira onartu hainbat arrazoiengatik. Salaketa horietatik zazpi Osasun Ministerioaren «Mi Salud@UE» proiektutik sortutako datu-tratamenduari buruzkoak dira (datuen elkartrukea Europar Batasunaren barruan, pazienteen osasun-laguntzarako). Horri buruz, esan behar da erreklamazioan aipatzen diren zerbitzuetan, «Mi Salud@UE» izendapenarekin eskaintzen diren horietan, ez dela daturik komunikatzen, lagatzen edo bidaltzen. Zerikusia duten osasun-arloko profesionalek interesdunaren historia kliniko laburtua kontsultatu ahalko dute baldin eta interesdunak berak bere bizilekukoa ez den Europar Batasuneko estatu kide batean eskatzen badu osasun-laguntza. Salaketan alegatzen da tratamendu horien legitimazio-oinarria interesdunaren adostasuna dela, baina ez da hala: osasun-zerbitzu publikoen lege-eginbeharra da herritarren laguntza bermatzea, hala ezartzen baita 2011/24/EB Zuzentarauan (2011ko martxoaren 9ko 2011/24/EB Zuzentaraua, mugaz gaindiko osasun-laguntzan gaixoen eskubideak aplikatzeari buruzkoa), eta zuzentarau horren transposizioa egiten duen otsailaren 7ko 81/2014 Errege Dekretuan.

Jasotako eta izapidetzeko onartutako salaketen % 70ean baino gehiagoan, Euskadiko administrazio publikoek datuen babeserako araudia urratu dela deklaratu den prozedurak bideratu dira azkenean.

4.2.2 Artxibatutako salaketak

- Ibilgailu baten enbargo-probidentzia bat hirugarren bati komunikatzea (DN23-041)

Erreklamatzailleak salatu duenez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak ibilgailu baten gaineko enbargo-probidentzia komunikatu dio hirugarren bati.

Aurkeztutako salaketa artxibatu da, inon ere ez baitago jasota salaketaren xede diren hirugarrenei ezer jakinarazi zaienik. Beraz, ez da egiaztatu Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak datuen babesari buruzko araudiaren aurka ezer egin duenik.



Erreklamatzailleak berraztertzeke errekurtsua aurkeztu du baina ezetsi egin da, ebazpena zuzenbidearen arabera dela ulertzeagatik.

- **Udal batek herritar bati gutun bat bidaltzea (DN23-053)**

Erreklamatzailleak salatu duenez, Sopelako Udalak datu pertsonalen tratamendu desegokia egin du, gutun bat jaso duelako zeinean jakinarazi baitzaio ez dela erabiltzen ari edukiontzien irekiera eta guztiko zabor-bilketako sistema.

Salaketa artxibatu da, Udalak tratamendu horiek egiteko legitimazioa daukalako.

- **Osakidetza-jarduera-protokoloen aurkako erreklamazioa (DN23-055)**

Erreklamatzailleak idazki bat aurkeztu du DBEAn, bere ustez datuen babesaren urraketa bat gertatu delako, kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programan eta beste prebentzio-kanpaina batzuetan (bularreko minbizia) korrespondentzia bidaltzeko gutun-azalean agertzen den informazioarengatik, era berean proba medikoen emaitzak anbulatorioetan jasotzen direlako eta, askotan, emaitza horiek itxi gabeko gutun-azalean egoten direlako. Gainera, dioenez, medikuarekin hitzordua hartzeko telefono-deietan «telefonoa hartzen duen pertsonak datu medikoak eskatzen ditu pazientearen familia-medikuarengana edo erizainarengana bidaltzeko...».

Salatutako inguruabarrak zehatz aztertu ondoren, erreklamazioa artxibatu da, ez delako ikusi datuak babesteko araudia urratu denik; izan ere, gutun-azal horretan ez da ezagutzera ematen hartzailearen adina, ezta datu medikorik edo datu konfidentzialik ere. Ez da frogatuta geratu txostenak modu horretan ematen direnik, eta dioen moduan emango balira ere, esan behar da kasu honetan gertatzen den bezala datu pertsonalekin (datu medikoak zein beste mota batekoak izan) kontaktuan dauden pertsona orok datuak sekretupean gordetzeko betebeharra duela.

Anbulatorioan hitzordua eskatzeari dagokionez, telefonoa hartzen duen pertsonak datu medikoak eskatzen ditu «pazientearen familia-medikuarengana edo erizainarengana bidaltzeko», erreklamatzailleak berak dioenez. Horregatik, datu horiek eskatzeko arrazoia da beharrezkoa dela arreta behar bezala jasotzeko. Hala ere, lehenago esan denez, pertsona horrek eskura duen informazioari buruz sekretua gordetzeko betebeharra dauka, baita datuak DBEOn eta DPBEBLON zehaztutako printzipioen arabera tratatzeko ere.

- **Datuak bildu eta tratatzea adostasunik gabe (DN23-059)**

Alderdi erreklamatzailleak salatu duenez, Lanbidek haren datu pertsonalak (identifikazio-datuak, eroldako datuak eta diru-sarrerari eta ondareari buruzko zerga-datuak) bildu zituen alderdi erreklamatzaillearen semearen bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa berrikusteko prozeduran, tratamendu horri buruz ez da informaziorik eman, ez da adostasunik eman eta ez da aukerarik egon aurreko egiteko eskubidea egikaritzeko.



Aztertu da erreklamazioa, bai eta espedientean sartutako dokumentazioa ere. Hori egindakoa egiaztatu da aplikatzekoa den araudiaren arabera erreklamaturako administrazioari onartzen zaion ikuskatzeko ahala dela alderdi erreklamatzaileraren datu pertsonalen tratamendua egiteko oinarri juridikoa, eta ez adostasuna.

Tratamenduaren arduradunak informazioa emateko duen eginbeharrari dagokionez, DBEOren 14. artikuluko 5. apartatuko c) letran jasotzen diren salbuespenetako bat gertatuko litzateke, hau da, informazioa lortzea edo komunikatzea berariaz ezarria egotea Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean; kasu honetan hala gertatzen da, zehazki bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara arautzen duten legeetan.

Eta aurka egiteko eskubideari dagokionez, ez da egiaztatu hori urratu denik, ez baita inon ere agertzen eskubide hori egikaritu denik edo Lanbidek ezer ukatu duenik edo erantzunik eman ez duenik.

Beraz, aurkeztutako erreklamazioa artxibatzea ebatzi da.

Artxibatzeko ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu da (RR24-003). Alderdi errekurtsogileak oinarri hau du bere berraztertzeko errekurtsuan, funtsean: Lanbidek erreklamatzaileraren zerga-arloko datuak irispidean eduki zituen eta bildu egin zituen, nahitaezko baimenik izan gabe, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legearen 21. artikuluko 7. apartatuko hirugarren paragrafoan eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan agintzen denez.

Errekurtsuaren ebazpenean azaldu den araudia eta errekurritutako ebazpenean jaso diren oinarriak aplikatuta, honako hau da Agintaritzaren iritzia: Lanbidek Foru Ogasuneko zerga-arloko datuak erreklamatzaileraren adostasunik izan gabe jaso zituen, 19/2021 Legearen beraren babespean egoteagatik; izan ere, lege horrek interesdunen adostasunerako salbuespena ezartzen du bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren entitateekin lankidetzan arituz gero edo prestazio hori jaso eta baliatzean egindako iruzurraren aurkako borrokan arituz gero.

Alegazioak ezetsi ondoren, Agintaritzak berraztertzeko errekurtsua ezetsi du eta errekurritutako ebazpena berretsi, zuzenbidearen arabera delako.

- **Lanbideren posta elektronikoko mezu batzuk jasotzea zerbitzuan altarik eman gabe (DN23-063)**

Lanbidek azaltzen duenez, erreklamatzaileraren izen eta lehen abizen berberak dauzkan erabiltzaile batek okerreko posta elektronikoko helbidea eman du, erreklamatzaileraren helbidearekin bat datorren helbidea, eta arrazoi horregatik jaso ditu posta elektronikoko mezuak behar izan gabe. Hala, datu pertsonal horren zehaztugabetasuna ezin zaio leporatu Lanbideri, erabiltzaile batek eman duelako. Bestalde, posta elektronikoko helbidea zehatza ez dela jakin ondoren, Lanbide erabiltzailearekin harremanetan jarri da, eta bere datu-basean aldatu du, erreklamatzailerak mezu gehiagorik jaso ez dezan.

Laburbilduta, posta elektronikoko helbidea zehatza ez izatea ez da Lanbideren erantzukizuna; zehatza ez dela jakindakoa, salatzaileak etorkizunean behar ez



bezalako posta elektronikoko mezu gehiagorik ez jasotzeko egin beharrekoak egin ditu Lanbidek; beraz, salaketa artxibatu da.

- **Historia klinikorako irispidea bidegabeki izatea (DN23-064)**

Erreklamatzailleak salatu duenez, Osakidetzan norbaitek bidegabe izan du irispidea haren historia klinikora, eta Osakidetza erantzuna aurkeztu du. Erantzun horren bidez honako hau azaldu zaio: auzitan jarri diren irispide guztiak -bi izan ezik- behar bezala egin ziren, eta hainbat zeregin betetzeko izan ziren, besteak beste laguntza-lana egiteko, erreklamatzaillearen eskaerei erantzuteko, administrazio-izapideak egiteko edo osasun publikoko gaietarako. Auzitan jarri den horri buruz, ez du diziplinako espedienterik ireki, zehapenaren xede den ekintza preskribatu egin delako.

Ustez datuen babesari buruzko araudia urratu izanari dagokionez, egiaztatu da urraketa hori preskribatu dela irispidea izandako bi aldiei dagokienez (auzitan jartzen dira aldi horiek), datuen babesari buruzko araudiko arau-hausterik larrienetarako gehieneko preskripzio-epea bete delako (3 urte, DPBEBLOren arabera). Eta auzitan jarri denari, irispidea izan den gainerako aldiei buruz, ez da egiaztatu irispidea bidegabeki izan denik. Beraz, aurkeztutako erreklamazioa artxibatzea ebatzi da.

- **Historia klinikorako irispidea bidegabeki izatea (DN23-065)**

Alderdi erreklamatzailleak Osakidetza aurkako salaketa aurkeztu du, norbaitek bere historia klinikora bidegabeki izan duelako irispidea; halaber, bere historia klinikora irispidea izateko eskubidearen babesa eskatu du, gertakari zehatz batzuei dagokienez.

Inork historia klinikora irispidea eduki izana auzitan jarri izanari dagokionez, alderdi erreklamatzailleak aurkeztutako dokumentazioan ez da egiaztatuta geratu alderdi erreklamatzaillearen historia klinikora irispidea bidegabeki izan denik, Osakidetza iritziz irispidea izatea egokia baitzen: izan ere, irispidea izan dutenak Osakidetza laguntza eman ohi dioten profesionalak dira. Beraz, Agintaritzak ebatzi du erreklamazioa artxibatzea erreklamatzailleak salatutako irispideei dagokienez.

Eta irispide-eskubidea egikaritu nahi izateari dagokionez, Agintaritzak ebatzi du eskubideak babesteko prozedura gisa izapidetzea eta ez salaketa gisa.

- **Datuen tratamendurako adostasuna nahitaez ematea udalean gestioak egiteko (DN23-070)**

Alderdi erreklamatzailleak salatu duenez, ez du onartu Bilboko Udalean Eusko Jaurlaritzak kudeatutako telelaguntzako zerbitzu publikoko eskabide bat jasotzea, toki-entitate horrek baimena eskatzen diolako datu pertsonalak hirugarrenei komunikatzeko.



Erreklamazioan, benetan, legezketasun arrunteko auzi bat planteatzen da, eta hori Agintaritza honen eskumenetik kanpo geratzen da, hizpidea baita Administrazioak uko egin izana eskabide bat erreklamatzailerak adierazitako baldintzetan aurkezteari eta izapidetzeari.

Erreklamazioan datu pertsonalen tratamenduari buruzko adostasun bat aipatzen da (datuak biltzeko eta/edo lagatzeko), erreklamatzailerak emateko prest ez zegoen adostasun bat, hain zuzen ere; halaber, Udalak onartzen du salatutako egitateak gertatu ziren unean datuen tratamenduari buruzko klausula berrikuspen-fasean zegoela, baina kontua da kasu honetan erreklamaturako administrazioak ez zuela erreklamatzaileraren datu pertsonalen tratamendurik egin, behintzat Agintaritza honek aztertu eta kontrolatu ahal duen tratamendurik. Beraz, Agintaritzak erreklamazioa artxibatzea ebatzi du.

- **Udal instalazioen kuota berritzeari buruzko informazioa hirugarren bati komunikatzea (DN23-072)**

Vitoria-Gasteizko Udalaren aurkako salaketa aurkeztu da, udal instalazioen kuota berritzeari buruzko informazioa hirugarren bati komunikatzeagatik.

Salaketa artxibatu da: ez da egiaztatu datuak babesteko araudia urratu denik, Vitoria-Gasteizko Udalak hasierako eskarian ordezkari gisa agertzen den pertsonari komunikatu diolako informazioa, eta ez delako egiaztatu hirugarrenei komunikatu zaienik.

- **Osakidetzan edozein izapide egiteko NANA eskatzea eta inprimatzea (DN24-017)**

Erreklamatzailerak idazki bat aurkeztu du DBEAN: gutxienez Bizkaian, osasun-zentroetan eta ospitaleetan, datu pribatuak jasotzen dira beharrik gabe; izan ere, eskari bat, kexa bat edo beste edozein idazki aurkeztu duen bakoitzean, NANA eta osasun-txartelaren zenbakia idaztera eta sinatzera behartzen dute. Beste batzuetan NANA eta osasun-txartela fotokopiatzen dituzte.

Erreklamazioa artxibatu da, arrazoi honengatik: Herriarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren (HSBL) 8.1 artikulua zera ezartzen du NANari buruz: «*berez balio nahikoa izango du, halaber, titularraren nortasuna eta datu pertsonalak egiaztatzeko*», eta administrazioak administrazio-prozeduran interesdun diren nortasuna egiaztatzeko eginbeharra du haien izen-abizenak egiaztatuz nortasun-agiri nazionalen edo identifikazio-dokumentu baliokidean, hala ezartzen baita 39/2015 Legearen 9.1 artikuluan.

Hala eta guztiz ere, horrek ez du nahitaez esan nahi interesdunaren NANaren fotokopia eskatu eta hartu behar denik. Beraz, kasu bakoitza zehazki aztertu behar da, administrazio-jarduketa bat egiteko baldintzak eta ekarri behar diren dokumentuak zehazterakoan; izan ere, kasu batzuetan eta prozedura jakin batzuei dagokienez, baliteke -Datuak Babesteko Europako Lantaldeak jardunbide egoki gisa azaldu duenez- NANaren edo agiri baliokide baten fotokopia erabili beharrean, tratamenduaren arduradunak, nortasun-agiria egiaztatu ondoren, idatzohar bat



jartzea, adibidez «nortasun-agiria egiaztatu da», nortasun-agiriaren kopia behar ez izateko edo nortasun-agiriaren kopia alferrik ez gordetzeko.

Bestalde, erreklamataileak dioenez, NANA eskatzen diote eta agiri hori fotokopiatzen dute «... *Hori behin eta berriz, berdin da joatea hitzordu bat idatziz eskatzera, kexa bat jartzera... haien aurrean edozein idazki egiten duzula ere, dokumentazioa hartzen dizute eta fotokopiatzen dute*», hau da, bere iritziz jarduketa hori orokorra da.

Hala ere, espedientean dauden agiriak aztertutakoan, ez da modu frogagarrian egiaztatu, erreklamataileak dioenez, Osakidetza-EOZek beti eta modu orokorrean, edozein izapide egin nahi dela ere, NANaren fotokopia eskatzen duenik. Beraz, kasu honetan, zantzuen aldetik ez dago arrazoizko justifikaziorik zehapen-espediente bat izapidetzeko.

RR24-010 zenbakiko berraztertze errekurtsoa aurkeztu da espediente horren aurka, eta errekurtso hori ezetsi da.

- **Ustez datu pertsonalak erabiltzea, doako laguntza juridikoaren onuradun izan ondoren (DN24-023)**

DBEari bidalitako idazkian, erreklamataileak dio Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak agian bere datu ekonomiko eta finantzarioak -aseguruen arlokoak- tratatzen dituela.

Aldiz, Eusko Jaurlaritzako datuak babesteko ordezkariak dio Sailak ez duela tratatzen erreklamatailearen aseguru arloko datu ekonomiko eta finantzarioak eta, datu pertsonalak tratatzekotan, erreklamataileak aurkeztutako doako justiziaren eskaria ebazteko datuak tratatu zituela. Eskubide hori onartutakoan, datu gehiagorik ez da bildu, ezta tratatu ere, eta hala jakinarazi zaio erreklamataileari.

Ebidentzien arabera, ez da tratamendurik egon, doako justiziaren eskubidea izapidetzearekin zerikusia duten datuez harago, eta ezin da egiaztatu arau-hausterik egon denik; beraz, erreklamazioa artxibatu da.

- **Teleordainketako gailuak detektatzeko arkuek bildutako datuen tratamendua (DN24-047)**

Erreklamataileak azaldu duenez, foru sozietate publikoak Bizkaian A-8 errepidean jarri dituen arkuetan teleordainketako gailua daukaten ibilgailuak monitorizatzen ari dira, eta hori intimitatearen eta datu-babesaren aurka doa; gainera, foru sozietate publikoak hark lehendik emandako datuak daukanez gero, bidean autoarekin zirkulatzen ari den pertsona hura dela jakin dezake.

Salaketa artxibatu da, bide horretatik igarotzen diren ibilgailuen titularren datu pertsonalen tratamendua uztailaren 20ko 7/2022 Foru Arauaren babespean dagoelako.

Kanona ordaintzera behartuta ez dauden ibilgailuei buruzko datu pertsonalen tratamendua (datu horien artean daude matrikularen irudia, hari lotutako



ordaintzeko era edo Free Flow sisteman alta ematea edo erregistratzea) egiten da ibilgailu horiek bereizteko, behartuta dauden ibilgailuetatik (ibilgailu astunak), eta ezin da egin Foru Arauan xedatuta ez dauden helburuetarako. Gainera, datu horiek aldi baterako tratatuko dira, soilik bide-ardatza erabiltzeagatiko kanona ordaintzeko betebeharririk ez dagoela egiaztatzeko behar den denboran.

7 DBEako LANGILEEK EMANDAKO PRESTAKUNTZA

Abenduaren 21eko 16/2023 Legeak ezartzen duenez, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak askotariko eginkizunak dauzka; besteak beste, bere eskumeneko gaia denez, datu pertsonalak babesteko prestakuntza. Hortaz, datu pertsonalak babesteko araudian jasotako xedapenen zabalkundea sustatu behar du, herritarrek datu horiek babestuak izateko duten oinarritzko eskubidea behar bezala ezagutzen dutela bermatzeko, bai eta arduradunek ere, eskubide hori errespetatu dadin arau horiek ezartzen dizkieten eginbeharrak betetzen dituztela bermatzeko.

Horren haritik, DBEako langileek hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu dute parte, DBEok aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei, eta kontzientzia publikoa hedatzeko pribatutasunaren balioari buruz eta pribatutasuna euskal sektore publikoko entitateen eguneroko jardueran zorrotz errespetatzeko beharrianari buruz.

Hona hemen DBEako langileek 2024an eman dituzten prestakuntza-saioetako batzuen laburpena:

- «EAEko Administrazio Orokorreko Datuak Babesteko Erreferenteentzako berariazko ikastaroa» (urtarrila).
- Gardentasunari eta informazio publikorako irispideari buruzko modulua Zuzenbide Digitaleko Adituaren masterrean, 2023-2024, Deustuko Unibertsitatean (otsaila)
- Osasuneko Datuen Segurtasunari eta Babesari buruzko foroaren XXI. bileran parte hartzea, Toledon (otsaila).
- Hitzaldia Mondragon Unibertsitateko Enpresa Fakultatean - «Datuen babeserako araudiko kontzeptu orokorrak» (otsaila).
- Tokiko Administrazioari eta Datuen Babesari buruzko VIII. Jardunaldi Irekia, Biscaytik (apirila)
- Datuen babesari buruzko modulua Deustuko Unibertsitateak eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoak antolatutako abokatutza jarduerarako unibertsitate-masterrean (apirila).
- Txostengile gisa parte hartzea Osasun Zerbitzuen Antolaketako eta Kudeaketako Adituaren berezko tituluan. Antolatzaileak: Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentua (apirila).
- Hitzaldia Bizkaiko Abokatuen Elkargoan bideozaintzari eta polizia-bideozaintzari buruz (maiatza).
- Txostengile gisa parte hartzea Osasun Arloko Administrazioen Elkartearen jardunaldietan, Tarragonan (maiatza).
- Arabako Foru Aldundia - «Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra» izenburuzko ikastaroa ematea (maiatza).



- Gipuzkoako Foru Aldundia - «Datu pertsonalen babesa. Europako Erregelamendua eta Lege Organikoa» izenburuko ikastaroa ematea (urria/azaroa).
- Datu pertsonalen babesa, gardentasunetik, Arabako Foru Aldundian (urria).
- IVAP (online)- «Datu pertsonalen babesa administrazio publikoan aplikatzeari buruzko lantegi praktikoa» (azaroa).
- Hedatu, datuak babesteko ordezkarien lehen euskal topaketa (azaroa).
- Datuen segurtasunari eta babesari buruzko XVI. jardunaldia, «Datuen babesa ingeniari-tza informatikoaren esparruan» izenburuzko hitzaldia. EHU / Vitoria-Gasteizko Ingeniari-tza Eskola (abendua).





8 DOKUMENTAZIO ZENTROA

Jarraian, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) Dokumentazio Zentroak informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketarekin lotuta egin dituen jarduerak aztertuko dira, eta nabarmenduko da zuzeneko kudeaketan nahiz instituzioaren barruko beste eragile batzuekiko lankidetzan izan duen zeregina. Dokumentazio Zentroa 2009ko otsailean sortu zen. Datuen babesarekin, gardentasunarekin, informatikako segurtasunarekin, informaziorako irispidearekin eta beste hainbatekin zerikusia duten arloetako informazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen espezializatutako gune gisa jarduten du, eta, gainera, administrazio publikoaren eta administrazio elektronikoaren arloko gai orokorrak ere lantzen ditu. Informazioaren kudeaketari esker, DBEAk bere ingurunea sakon ezagutu ahal du, eta antolakundearen barnean plangintza estrategiko egokia egiteko modua du, bai eta informazioa behar bezala banatzeko ere.

2024. urtearen ezaugarria trantsizioa izan da: aurrerakadak egon dira gakoak diren arlo batzuetan, esate baterako informazioaren kudeaketan eta edukien zabalkundean; gainera, DBEA komunikazioko kanal eta bide berrietan integratu da. Halaber, erronka eta arazo batzuk ere sortu dira, besteak beste tresnen migrazioarekin eta barneko prozesuak eguneratzeko eta hobetzeko beharrezanarekin lotuta.

8.1 DOKUMENTAZIO ZENTROKO JARDUKETA NAGUSIAK

2024an, Dokumentazio Zentroak funtsezko jarduketa batzuk egin ditu informazioaren kudeaketa eta zabalkundean. Ekimen nabarmenen artean aipatzekoa da Dokumentuak Kudeatzeko Sistema bat (DKS) inplementatzea -orain garapen fasean dago jarduketa hori-, eta 2022ko dokumentazioa artxibora transferitzea -guztira, 162 espediente transferitu dira-.

- **Dokumentuen eta artxiboaren kudeaketa-sistema.** 2024an, aurrera egin da dokumentuen arloan funtsezkoak diren tresna batzuk definitzen, funtsezkoak baitira sailkapen-koadroak eta kontserbazio-egutegiak. Sistema osorik garatzeko bidean dago oraindik, baina dokumentuen eta artxiboaren kudeaketa-sistemaren egoera aztertzen hasi gara.
- **Informazio-buletinak.** Dokumentazio Zentroak DBEAko langileentzat informazio-buletin batzuk mantentzen ditu, adibidez eguneroko albisteen bulletina, Ubermetrics enpresarekin kudeatzen den hori. 2024an, bilaketa-sententziak birdefinitu dira eta informazio-iturriak eguneratu dira. Horrez gain, eguneratzen jarraitu dugu «Legesarea», aldizkari ofizialetako erreferentziak eta albiste juridiko interesgarriak irispidean izateko bidea ematen duen bulletina.
- **Aukeratutako informazio hedapenerako bulletina.** 2024ra arte, hileko bulletina egiten zen, langileentzat interesgarria izan zitekeen informazio proaktiboarekin. Hala ere, taldea proiektu berri batzuetan parte hartzen hasi denez, bulletin hori murriztu egin da eta informazio garrantzitsua modu deszentralizatuan banatzen da, jaso ahala.



- **Irizpenak eta legezkotasun-txostenak.** 2024an, taldeak instituzioaren webgunean 55 dokumentu argitaratu ditu, bai irizpenak, bai ebazpenak; hala, araudia eta DBEaren gidalerroak hedatzen lagundu du.
- **Dokumentuak irispidean izateko zerbitzua.** Dokumentazio Zentroak langileentzat garrantzitsuak diren dokumentuak irispidean izateko bidea ere eman du, besteak beste ikerketa-artikuluak eta monografiak eskueran jarri baititu. 2024an, liburutegien arteko mailegu bidez 16 dokumentu eskuratu dira, eta 8 kontsulta pertsonalizatu ebatzi dira.
- **Datu-base bibliografikoak.** Zentroak Refworks erabiltzen du bibliografiaren kudeatzaile gisa, baina tresnaren bertsio berriarekin eragozpen batzuk sortu dira. Arazo horiek konpontzeko daude, irtenbidea ematea ez baita lehentasuna gaur egun. Bestalde, Dialnet datu-basearekin lankidetzan jarraitzen dugu; horri esker, DBEaren interesekoak diren arloekin zerikusia duten edukiak etengabe eguneratzen ditugu.

8.2 DOKUMENTUEN KUDEAKETA

- **Dokumentuak Kudeatzeko Sistema (DKS).** Espedienteak izapidetzeko sistema elektronikoa bat txertatzen aritu gara, baina 2024an zeregin horretan aurrerabideak urriak izan dira. Halaber, 2022an amaitutako 162 espediente transferitu dira artxibora.
- **Eguneroko albiste-buletinak.** Eguneroko buletinak kudeatzen jarraitu dugu, esate baterako DBEaren buletina eta Legesarea, kanpoko enpresen laguntzarekin, eta bilaketarako eta sailkapenerako tresnak eguneratu ditugu.
- **Aukeratutako informazioaren hedapena.** Buletin proaktiboak prestatzen lan gutxiago egin da, arloko langileria beste proiektu batzuetan aritu delako, baina aldizkariak eta artikuluak banatzen jarraitu da, eskuragarri dauden tresnen arabera.
- **Datu-base bibliografikoa (Refworks).** Tresna migratu ostean arazo batzuk identifikatu dira, eta, irtenbidea bilatzeari ekin ez zaion arren, oraindik dokumentu batzuk datu-basean sartzeko daude.
- **Funts bibliografikoa.** 15 monografia eskuratu dira eta bildumako 32 lan espurgatu dira. Gainera, bilaketako termino batzuk Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogo kolektiboan sartu dira.
- **Prestakuntza.** Prestakuntza eman da Ubermetrics-Delta tresnari buruz eta Aranzadi eta Mementix Administrativo datu-base profesionalei buruz, eta horrez gain, ikastaroak eman dira dokumentuen kudeaketari eta e-administrazioari buruz.

8.3 KOMUNIKAZIOA

- **Web-orria.** DBEaren web-orria berregituratzen lagundu dugu, 16/2023 Legea indarrean jarri ostean informazioa eta edukia eguneratuz. Diseinua berritzeko lana abian dago, eta horretarako kanpoko enpresa bat kontratatu da.



- **Sare sozialak.** Jarduera areagotu da X (lehen Twitter) eta LinkedIn sareetan: nabarmen egin dute gora argitalpenen maiztasunak eta jarraitzaileen kopuruak.
- **Komunikabideak.** Prentsan presentziak gora egin du, komunikabideetan 45 aldiz agertu baikara. Nabarmentzekoa da Radio Vitoriako «Consumidores» saioarekiko lankidetzak: saio horren barruan, hilean emanaldi bat egiten hasi gara.
- **Wikipedia.** DBEAri eta agintaritzako lehendakariari, Unai Aberasturiri buruzko sarrerak eguneratzen lagundu dugu.

8.4 LAN-TRESNAK

- **SharePointen** karpeta bat sortu da, berariaz, komunikaziorako. Karpeta horretan zenbait baliabide biltzen dira, adibidez komunikabideen datu-baseak, edukiak sortzeko erabilgarriak diren aplikazioak eta hiztegi kontrolatu bat, euskaraz eta gaztelaniaz.
- **Ereduak eta txantiloak.** Antolakundearen txantiloia eta dokumentu generikoen ereduak berriak dira, nortasun bisual korporatibo berrira egokitzeko.

8.5 BESTE PROIEKTU BATZUK

Laburpen honetan azaltzen dira 2024an egindako jarduerak. Nabarmentzekoa da Hedatu, Datuak Babesteko Ordezkarien Euskal Sarea sortzeko ekitaldiaren inguruko komunikazioan, dokumentu-kudeaketan eta antolaketan egindako lana.

- **HEDATU, datuak babesteko ordezkarien komunitatea.** Plataforma informatiko bat baino gehiago da HEDATU; datuak babesteko ordezkarientzat topaketarako eta lanbide-garapenerako eremua da. Helburu nagusi du komunitate sendo bat sortzea, non datuak babesteko ordezkariek elkarrekin konektatzeko, esperientziak partekatzeko eta modu efikazean elkarlanean aritzeko modua izango baitute. Plataforma horrek tresnak, baliabideak eta adituen sare bat jartzen ditu datuak babesteko ordezkarien eskueran.

HEDATUren funtzioetako batzuk honako hauek dira:

- **Eztabaidaguneak:** Zalantzak azaltzeko eta denon intereseko gaiak eztabaidatzeko eremuak.
- **Baliabide espezializatueterako irispidea:** Datuen babesari buruzko dokumentuak.
- **Agenda:** Ekitaldi aipagarriei buruzko informazioa.
- **Lankidetzak-guneak:** Taldean lan egiteko tresnak.
- **Harreman-sarea:** Datuak babesteko ordezkarien arteko elkarlana bideratzeko direktorio profesionala.

Dokumentazio-zerbitzuak plataforma diseinatzen, parametrizatzen eta lehenengo baliabideak kargatzen lagundu du, edukiak kategorien arabera egituratu ditu eta jardunbide egokien adibideen berri eman du.



- **Euskadiko DBOen 1. Batzarra.** Ekitaldi hori 2024ko azaroaren 18an egin zen, Bilbon, datuen babesaren arloko profesionalen prestakuntza eta haien arteko networkinga sustatzeko helburuz. Topaketa horretan zenbait kasu praktiko azaldu ziren, bai eta segurtasun-arrakalak kudeatzeko estrategiak, eta HEDATU plataforma bera ere bai. Dokumentazio-zerbitzuak antolaketan parte hartu zuen, eta alderdi logistikoen ardura hartu zuen: aurrekontuak eskatzea, hornitzaileak aukeratzea eta ekitaldiaren irudia kudeatzea.
- **DBEaren 20. urteurreneko gala.** 2024an, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak 20. urteurrena ospatu du. Ospakizun horren une gorena 2025eko otsailaren 27an helduko da, Euskalduna jauregian egingo den galan. Dokumentazio-zerbitzua buru-belarri aritu da ekitaldia antolatzen, hainbat zeregin kudeatu baititu: hornitzaileak aukeratzea, agenda zehaztea eta gonbidapenak kudeatzea.

8.6 KOMUNIKABIDEAK

Jarraian, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak 2024an izan dituen agerraldirik aipagarrienak azalduko ditugu, laburbilduta:

- Urtarrilaren 7a, El Correo: <https://www.elcorreo.com/alava/araba/llega-quejas-accesos-indebidos-historiales-osakidetza-20240107003330-nt.html?edtn=alava&vca=fixed-btn&vso=rss&vmc=tw&vli=alava/araba>
- Urtarrilaren 8a, Bizkaia Gaur: <https://www.bizkaia.gaur.com/2024/01/05/16-2023-legea-abenduaren-21ekoa-datuak-babesteko-euskal-agintaritzarena-indarrean-sartu-da/>
- Urtarrilaren 18a, En Jake: <https://x.com/i/status/1747965576742416623>
- Urtarrilaren 18a, RTVEuskadi: <https://x.com/i/status/1748005319219843091>
- Urtarrilaren 19a, Gaur Egun eta Teleberri: (bideoa ez dago eskuragarri) bideozaintza, urtarrilaren 22a, Faktoria: <https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/faktoria/oso/9404064/unai-aberasturi-kaleetako-kamerak-jartzeko-justifikazio-bat-behar-da-eta-gardentasuna-ere-bai/>
- Urtarrilaren 25a, Gaur Egun eta Teleberri: worldcoin Urtarrilaren 25a, Ganbara EITB: <https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/ganbara/detalle/9406650/unai-aberasturi-estas-perdiendo-por-completo-control-sobre-informacion-que-se-refiere-a-tu-persona/>
- Urtarrilaren 25a, Más de uno Álava: https://www.ondacero.es/emisoras/pais-vasco/vitoria/mas-de-uno-alava/mas-uno-alava-susana-marques-24012024_2024012465b10aced8aa250001d886ce.html



- Urtarrilaren 29a, Diario Vasco:
<https://www.diariovasco.com/#/sociedad/publico-fotos-hijos-instagram-puedo-decir-hagan-20240127065708-nt.html?vca=fixed-btn&vso=rrss&vmc=tw&vli=sociedad>
- Urtarrilaren 29a, Hoy por hoy Bizkaia:
https://cadenaser.com/audio/ser_bilbao_hoyporhoybizkaia_20240129_082004_083000/
- Urtarrilaren 30a, Egun On: (bideoa ez dago eskuragarri) elkarriketa luzea, gaurkotasuneko zenbait gairi buruz
- Urtarrilaren 31, Cadena Ser:
<https://cadenaser.com/euskadi/2024/01/31/por-lo-que-nos-dicen-varias-personas-no-se-esta-informando-debidamente-sobre-el-uso-que-estan-dando-a-los-datos-biometricos-radio-bilbao/>
- Otsailaren 1a, Quédate con Ane:
<https://www.eitb.eus/es/television/programas/quedate-con-ane/videos/detalle/9412085/unai-aberasturi-merece-pena-ceder-parte-de-lo-que-somos-por-pocos-euros/>
- Otsailaren 6a, Deia:
<https://www.deia.eus/bizkaia/2024/02/03/expertos-alertan-riesgo-escanear-iris-7824190.html>
- Otsailaren 6a, ABC: <https://www.abc.es/espana/pais-vasco/quiere-guardar-iris#creador-chatgpt-20240205180834-nt.html?vca=comparrss&vso=abc&vmc=rrss&vli=fixed-twitter>
- Otsailaren 12a, Deia: <https://www.deia.eus/bizkaia/2024/02/11/bilbao-cuenta-265-camaras-getxo-7858206.html>
- Otsailaren 13a, Onda Vasca:
<https://www.ondavasca.com/programas/onda-vasca-con-kike-alonso/>
- Otsailaren 21a, Noticias de Gipuzkoa:
<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sucesos/2024/02/19/alertan-estafa-tarjeta-mugi-7893373.html>
- Otsailaren 21a, En Jake: iruzurra Mugi eta Bat txartelekin
- Martxoaren 6a, Cadena Ser:
<https://cadenaser.com/euskadi/2024/03/06/la-agencia-de-proteccion-de-datos-ordena-bloquear-la-captacion-de-datos-biometricos-a-worldcoin-radio-bilbao/>
- Martxoaren 6a, Financial Times:
<https://www.ft.com/content/204c1c81-7a6f-4a6a-907e-8782b9d1bed2>
- Martxoaren 7a, Quédate con Ane: worldcoin
- Martxoaren 7a, Teleberri: worldcoin
- Martxoaren 7a, En Jake: worldcoin




- Martxoaren 12a, Naiz: https://irratia.naiz.eus/eu/info_irratia/20240312/datu-pertsonalek-osatzen-duten-negozioa-gero-eta-handiagoa
- Martxoaren 13a, Cadena Ser: [Colectivos antirracistas estudian unirse a la denuncia por la filtración de las fichas policiales en Aste Nagusia. "¿En manos de quien estamos?" | Actualidad | Cadena SER](#)
- Martxoaren 18a, Gara: [«Datuek osatzen duten negozioa gero eta handiagoa da» | Euskal Herria | GARA Euskal Herriko egunkaria](#)
- Martxoaren 21a, EITB noticias: [Unai Aberasturi: 'En la decisión ha prevalecido el interés público, el contenido y la libertad de información'](#)
- Martxoaren 25a, Diario Vasco: [«Es normal que no se aplicase el 'derecho al olvido' al asesinato de Nagore Laffage» | El Diario Vasco](#)
- Martxoaren 25a, Diario Vasco: [La extensión de cámaras en la calle en Euskadi dispara las quejas por posibles abusos en videovigilancia | El Diario Vasco](#)
- Martxoaren 27a, Quédate con Ane: bideozaintza
- Apirilaren 30a, Gaur Egun eta Teleberri: iruzurrak whatsapp bidez
- Martxoaren 3a, Dirección asistida: [Dirección asistida \(2023-2024\) \(01/05/2024\): Unai Aberasturi, coches de la Zarzuela, BH y Seat Ibiza](#)
- Ekainaren 19a, Euskadi Irratia: [Unai Aberasturi: "Herritarrok kontziente izan behar dugu sare sozialetaz egiten dugun erabileraz"](#)
- Ekainaren 25a, Cadena Ser: ["Tenemos que comprender que WhatsApp no es una herramienta para niños" | Sociedad | Cadena SER](#)
- Uztailaren 3a, Quédate: Pornoaren aurkako APPa
- Uztailaren 17a, Diario Vasco: [Las llamadas comerciales siguen sin fin | El Diario Vasco](#)
- Uztailaren 19a, Naiz: mezu lasaigarria, Microsoft erori dela-eta Uztailaren 31, Boulevard: [Boulevard \(2024/07/31\)](#)
- Abuztuaren 1a, Radio Euskadi: [Audioa: Entrevista a Unai Aberasturi, director de la Autoridad Vasca de Protección de Datos](#)
- Abuztuaren 30a, Boulevard: kamerak Gasteizko taxietan
- Urriaren 21a, Consumidores (hileko 3. larunbatean agertuko gara)
- Azaroaren 21a, Radio Vitoria: [La Autoridad Vasca de Protección de Datos pone en marcha la red HEDATU](#)



9 BARNE KUDEAKETA

9.1 EGITURA ETA LANGILERIA

9.1.1 Egitura organikoa eta Lanpostu Zerrenda (LZ)





9.1.2 Egitura organikoa eta lanpostu-zerrendak

Datuak Babesteko Agintaritzen arau-esparru berriaren barruan bereziki aipatzekoak dira apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (DBEO), gerora onartutako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (DPBEDBLO), eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

Gaur egungo egitura organikoa orduan Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendari zenaren 2023ko martxoaren 29ko Ebazpenaren bidez onartu zen.

Egitura organikoaren aldaketaren ondorioz, DBEBren lanpostu-zerrenda eguneratu zen, halako moduz non egitura organikoaren aldaketa horiek agertu baitziren, eta datuen babesaren esparruan onartutako arau juridiko berriek sorrarazitako beharrianetara egokitu zen. Eguneratze hori 2023ko maiatzaren 25eko Ebazpenaren bidez onartu zen.

Azkenik, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako behin-behineko langileen gaur egungo lanpostu-zerrenda zuzendariaren 2023ko irailaren 18ko Ebazpenaren bidez onartu zen.

9.1.3 Giza Baliabideak Antolatzeko Plana

Giza Baliabideak Antolatzeko Planaren bidez, Institutioak eskura dituen giza baliabideak egituratzen eta antolatzen dira. Gainera, datuen babesaren arloan sortzen ari diren araudi berriek eta informazio-prozesuen kudeaketarako etengabe eta bat-batean agertzen diren teknologiek ekartzen dituzten erronka berriei aurre egiteko lagungarria izango da plana, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariak 2024ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bidez onartu zuen hori.

DBEaren lehendakariaren 2024ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bidez, funtzionarioak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21ko 16/2023 Legearen bidez sortutako kidego eta eskaletan sartzeko prozedura arautu eta deitu zen, lege hori indarrean jartzean zuten egoera oinarri hartuta, 16/2023 Legearen hirugarren xedapen iragankorraren bidez Datuak Babesteko Euskal Bulegoko funtzionarioak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako funtzionarioen kidego eta eskaletan integratzeko modua jorratzen baita.

Prozesu hori amaitutzat eman zen Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariaren 2024ko uztailaren 30eko Ebazpenaren bidez.

9.1.4 Lanaldia eta ordutegiak

2024ko ekitaldian ezarritako lanaldia eta ordutegiak betetzeari dagokionez, lanaldiko ordu malguak ezartzen eta norberaren etxebizitzan egindako lana sustatzen jarraitu dugu, lana eta esparru pertsonala uztartzeko modua delakoan;



hala, gainera, lantokietan pertsonen presentzia masiboa eragozten da eta joan-etorriek eragindako estresa murrizten da. Neurri horiek jasota zeuden SARS-CoV-2 koronabirusaren eraginpean egotegatiko arriskuetaarako kontingentzia-planean, 2020az geroztik.

Orain arte, Agintaritzan egindako esperientzia pozik egoteko modukoa izan da, orokorrean, bai prebentzioari begira, bai jarduera betetzeari eta zerbitzua behar bezala emateari begira, produktibitatea areagotu baita.

9.2 AURREKONTUAK

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikulua honako hau ezartzen zuen: «*Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera*».

2023ko urriaren 23ko Ebazpenaren bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak 2024. urteko aurrekontuaren aurreproiektua onartu zuen eta Eusko Jaurlaritzari igortzeko agindu zuen, modu beregainean EAEko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko.

Hala, abenduaren 23ko 21/2023 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituenak, honako hau ezartzen du 1.4 artikuluan: «*Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontua ere onartzen da eta lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikuluan*».

9.2.1 Aurrekontu-betearazpena

GASTUEN AURREKONTUA

KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Kredituak guztira	Onartutako obligazioak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera
1	Langileen gastuak	2.496.050,00	1.377.029,47	1.350.851,33	26.178,14	% 55,17
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	576.100,00	223.038,89	185.112,37	37.926,52	% 38,72
4	Transferentzia arruntak	9.000,00	5.000,00		5.000,00	% 55,56
6	Inbertsio errealak	92.000,00	78.970,20	18.549,30	60.420,90	% 85,84
	Gastuen batura guztira.	3.173.150,00	1.684.038,56	1.554.513,00	129.525,56	% 53,07



SARREREN AURREKONTUA

KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide garbiak	Egindako sarrerak	Kobratzeke	Betearazpen egoera
3	Tasak eta bestelako sarrerak		1.918,85	1.918,85		% 100,00
4	Transferentzia arruntak	2.713.148,00	2.713.148,00	2.713.148,00		% 100,00
5	Ondare-sarrerak		105.906,03	80.346,55	25.559,48	% 75,87
6	Benetako inbertsioak besterentzea		1.887,60	1.887,60		% 100,00
7	Kapital transferentziak	15.000,00	15.000,00	15.000,00		% 100,00
8	Finantza-aktiboak	445.002,00				
	Sarrerren batura guztira.	3.173.150,00	2.837.860,48	2.812.301,00	76.678,44	% 99,10

9.2.2 Ekonomia, finantza eta kontabilitate arloetako kontrola

DBEA kontabilitate publikoaren araubidearen menpe dago, bai eta Autonomia Erkidegoko Ogasun eta Finantza Sailaren ekonomia, finantza eta kudeaketa arloko kontrolaren menpe ere. Hala eta guztiz ere, ekonomia eta finantzetako eta kontabilitateko jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrolpean daude.

DBEAREN ekonomia, finantza eta kudeaketa arloa behar bezala kudeatzen diren diren aztertze, eta Agintaritzari esparru ekonomikoan dagozkion xedapenak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa ari da finantza-auditoretzak urtean behin egiten.

• 2023ko auditoretza

2023ko ekitaldiko kontuak, programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoriarekin batera aurkeztu ziren horiek, 2024ko martxoaren 26an ikuskatu ziren. Hona zer dioen auditoretzaren azken txostenak:

«... honekin batera doazen urteko kontuek entitatearen alderdi esanguratsu guztietan 2023ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiru-fluxuena ere, aplikatu beharreko finantza informazioaren araudi-esparruaren arabera (araudi hori memoriaren 6.3 oharrean identifikatzen da) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera.

.....

Egindako lanean oinarrituta, ebatzi dugu gure txostenean ez dagoela zertan jakinarazi arrisku esanguratsuagorik, behintzat auditoretzan kontuan hartutakoen artetik funtsezko auziak sortzeko moduko arriskurik.

.....

Helburuak betetzeari buruzko memorian biltzen den informazioa bat dator 2023ko ekitaldiko urteko kontuen informazioarekin, eta edukia, baita informazioa aurkezteko modua ere, bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin».



9.3 BALIABIDE MATERIALAK

9.3.1 Egoitza

DBEak bere jarduera Apaizgaitegiaren eraikinean egiten du (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz). 2023ko martxoaren 31ra arte, EJE SArekin azpierrentamenduko kontratua zeukan lokal horiek erabiltzeko.

Apirilaren 1etik aurrera «Apaizgaitegia» eraikinaren kudeaketaz Baliabide Orokorren Zuzendaritza arduratzen da; DBEak bere jarduera lokal horietan beraietan egiten jarraitzen du, eta lokalen erabilera doan lagata dauka.

9.3.2 Beste zenbait kontratu txiki

Hainbat kontratu txiki egin da DBEaren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak dira:

- Fotokopiagailuen mantentze-lana
- Bulegoko materiala eta ekipoa erostea
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- Ekitaldiak antolatzea eta ekitaldiotan parte hartzea
- Urteko memoria argitaratzea
- Azterlanak eta txostenak
- Entitatearen diseinu grafiko berria
- Kanpoko prebentzio-zerbitzua
- Langileen bizi- eta istripu-aseguruak

9.3.3 Egitura teknologikoa eta aplikazioen hobekuntza

DBEak eta EJEk izenpetutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan (2024ko Addendaren bidez garatuta) hainbat zerbitzu eta dotazio informatiko eta komunikazio-zerbitzu burutu dira, eta egitura informatikoa hobetzen jarraitu da, bai hardwarearen aldetik, bai softwarearen aldetik.



9.4 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA

9.4.1 Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana

Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeak hainbat eginkizun eta betebeharrak ezartzen ditu, eta horien artean prebentzio-plan bat ezartzea dago. Prebentzio-planak antolakundeek lan jarduerak guzti-guztia hartu behar du bere baitan. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak uste du hori oinarritzeko egin behar dela.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak uste du laneko segurtasuna, pertsonen osasuna eta lan-ingurunearen zainketa eta hobekuntza funtsezko jarduerak direla erakundeak kudeatzeko.

Prebentzio-jarduerak sendotzearen eta hobetzearen aldetik, DBEak ezarritako daukan Laneko Arriskuen Prebentzioko politika garatzen du eta, horretarako, prebentzioko ekintzak eta ekintza zuzentzaileak planifikatzen eta burutzen ditu urtero.

Jarduerak-planen barruan, 2024an honako jarduketak hauek egin dira:

- Segurtasunaren, Higienearen eta Ergonomia/Psikosoziologiaren esparruko Jardueren urteko plana
 - Lanpostuko lan-arriskuen ebaluazio etengabea
 - Laneko arriskuei buruzko informazioa langileentzat
- Osasunaren Zainketa arloko Jarduerak Planaren urteko egitaraua
 - Azterketa medikoak

9.5 KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-ERAGINA

9.5.1 Kudeaketa jasangarria

Entitate honen jarduerak kontuan hartuta, ez du ondarearekin, finantza-egoerarekin eta horren emaitzekin alderatuta garrantzirik izan dezakeen ingurumen jatorriko erantzukizunik, gasturik, aktiborik ezta hornidurarik, ez kontingentziarik ere.

Entitatea ez da berotegi-efektuko gasak emititzeko eskubideen titularra, eta ez dauka kontrolik halako eskubideen gainean.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren funtzionamendu arruntan gizarte, ingurumen eta ekonomia gaietan hobetzeko politikak aplikatzen dira, Agintaritzak bere eskumenak egikaritzean dauzkan legezko eginbeharrez harago.



10 AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Kontsultak

2024. urtea		Kopurua
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	1
Foru Administrazioa eta Toki Administrazioa	Gipuzkoako Foru Aldundia	1
	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Araba	1
	Bilboko Udala	1
	Barakaldoko udala	1
	Getxoko Udala	1
Beste entitate batzuk	Lanbide	1
JASOTAKO KONTSULTA KOPURUA GUZTIRA		7

Irizpenak

2024. urtea	Kopurua
EGINDAKO IRIZPENAK GUZTIRA	7

Legezkotasun-txostenak

2024. urtea	Kopurua
Lege-aurreproiektuak / Dekretu-proiektuak / Aginduak	17
EGINDAKO TXOSTENAK GUZTIRA	17



11 KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Eskubideak babesteko erreklamazioak

2024. urtea	Kopurua
Jasotako babes-eskariak	32
Ebatzitako babes-eskariak	31

Salaketak

2024. urtea	Kopurua
Aurkeztutako salaketak	84
Ebatzitako salaketak	74

Arau-hauste prozedurak

2024. urtea	Kopurua
Hasitako arau-hauste prozedurak	31
Ebatzitako arau-hauste prozedurak	28



12 BARNE KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK

12.1 AURREKONTU-PLANTILLARI BURUZKO DATUAK

2024an DBEaren batez besteko plantilla honako hau zen, kategoria orokorren arabera:

Kategoria	Dotazioak	Batez besteko plantilla
Lehendakaria	1	1
Goi-mailako teknikariak	16	13,29
Administrariak	4	2
GUZTIRA	21	16,29

Hona hemen plantillaren egoera 2024ko abenduaren 31n, sexua kontuan hartuta:

Kategoria	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Lehendakaria		1	1
Goi-mailako teknikariak	6	8	14
Administrariak	1	1	2
GUZTIRA	7	10	17

Urteko aurrekontu-plantillako lanpostuen aldakuntza honako hau izan da:

Plantilla, langileen moten eta mailaren arabera	2024ko abe.		2023ko abe.	
	Dotazioa	Benetakoa	Dotazioa	Benetakoa
Goi-kargudunak				
Lehendakaria	1	1	1	1
Behin-behineko langileak				
Aholkularia I-A / 28 maila	1	1	1	1
Funtzionarioak				
Goi-mailako teknikaria I-A / 28 maila	3	1	3	2
Goi-mailako teknikaria II-A / 27 maila	2	2	2	2
Goi-mailako teknikaria II-B / 27 maila	7	7	7	7
Goi-mailako teknikaria III-B / 25 maila	2	1	2	1
Goi-mailako teknikaria III-C / 25 maila	1	1	1	1
Administraria IV-A / 22 maila	1	1	1	1
Administraria V-A / 20 maila	1	1	1	1
Administraria V-C / 20 maila	1		1	
Goi-kargudunaren idazkaria VI-A / 18 maila	1		1	
GUZTIRA	21	16	21	17



12.2 AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK

12.2.1 Aurrekontuaren likidazioa

Gastuen aurrekontua

Azalpena	Behin betiko aurrekontu-kredituak	Onartutako obligazioak	Ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak abenduaren 31r	Aurrekontuaren betearazte portzentajea	Onartutako obligazioak 2023
Goi-kargudunen ordainsariak	99.815,00	84.679,47	84.679,47	—	84,84	89.791,20
Behin-behineko langileak	78.193,00	77.023,36	77.023,36	—	98,50	52.469,39
Funtzionarioen ordainsariak	1.724.187,00	979.725,23	979.725,23	—	56,82	942.097,14
Entitatearen konturako gizarte-kotizazioak	510.300,00	193.891,94	172.244,26	21.647,68	38,00	215.284,22
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	47.555,00	22.800,80	18.270,34	4.530,46	47,95	21.527,40
Langileen prestakuntza eta hobekuntza	6.500,00	5.558,35	5.558,35	—	85,51	654,90
Gizarte-ekintza	7.500,00	5.607,00	5.607,00	—	74,76	7.500,01
Aseguruak	22.000,00	7.743,32	7.743,32	—	35,20	8.147,95
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	286.500,00	—	—	—	—	—
Informazioa prozes. ekipamen. eta aplikazio. informatikoak	15.000,00	14.452,81	10.932,45	3.520,36	96,35	15.065,23
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	—	788,90	788,90	—	—	—
Altzariak	10.000,00	193,00	193,00	—	1,93	5.497,26
Bulegoko ekipoak	—	3.949,94	3.198,84	751,10	—	—
Informazio-prozesuetarako ekipoak	—	—	—	—	—	59,99
Aplikazio informatikoak	141.100,00	72.080,00	41.756,09	30.323,91	51,08	117.526,25
Bulegoko materiala	5.000,00	2.732,90	2.732,90	—	54,66	2.645,66
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	10.000,00	15.742,51	15.532,71	209,80	157,43	16.418,06
Posta bidezko komunikazioak eta mezularitza	4.000,00	1.091,02	1.002,90	88,12	27,28	1.091,16
Lokomozioa eta egonaldi-gastuak	18.000,00	44.387,90	42.054,75	2.333,15	246,60	17.713,31
Protokoloa eta ordezkaritza	6.000,00	2.146,41	2.146,41	—	35,77	1.243,15
Komunikazio instituzionala, publizitatea eta propaganda	18.000,00	—	—	—	—	—
Juridikoak eta auzibidekoak	5.000,00	—	—	—	—	—
Bilerak, konferentziak eta ikastaroak	15.000,00	46.999,84	46.943,34	56,50	313,33	4.898,67
Bestelako hainbat gastu	—	6.313,16	5.669,58	643,58	—	10.067,36
Argitalpenak argitaratzea eta banatzea	10.000,00	1.028,50	1.028,50	—	10,29	—
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	—	—	—	—	—	31,00
Azterlanak, txostenak, aholkularitza	—	—	—	—	—	6.050,00
Profesional independenteen lan teknikoak eta zerbitzuak	32.500,00	11.132,00	11.132,00	—	34,25	5.687,00
Enpresentzat, familientzat eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat	9.000,00	5.000,00	—	5.000,00	55,56	—
Eragiketa arruntak guztira	3.081.150,00	1.605.068,36	1.535.963,70	69.104,66	52,09	1.541.466,31



Aplikazio informatikoak	80.000,00	69.483,80	9.062,90	60.420,90	86,85	53.341,71
Altzariak	12.000,00	6.364,60	6.364,60	—	53,04	—
Bulegoko ekipoak	—	—	—	—	—	3.291,20
Informazio- prozesuetarako ekipoak	—	3.121,80	3.121,80	—	—	1.560,90
Kapital eragiketak guztira	92.000,00	78.970,20	18.549,30	60.420,90	85,84	58.193,81
Guztira	3.173.150,00	1.684.038,56	1.554.513,00	129.525,56	53,07	1.599.660,12

Diru-sarreraren aurrekontua

Azalpena	Behin betiko aurrekontu- aurreikuspenak	Onartutako eskubideak	Diru bilketa likidoa	Kobratzeko dauden Eskubideak	Betearazpenaren %	Onartutako eskubideak 2023
Zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak	—	1.918,85	1.918,85	—	—	—
Bankuko kontu korranteetako interesak	—	105.906,03	80.346,55	25.559,48	—	2.650.200,00
EAEko administrazio orokorretik	2.713.148,00	2.713.148,00	2.713.148,00	—	100,00	—
Eragiketa arruntak guztira	2.713.148,00	2.820.972,88	2.795.413,40	25.559,48	104,04	2.650.200,00
Bulegoko ekipoak	—	1.887,60	1.887,60	—	—	—
EAEko administrazio orokorretik	15.000,00	15.000,00	15.000,00	—	100,00	15.000,00
Diruzaintzako gerakinak	445.002,00	—	—	—	—	—
Kapital eragiketak guztira	460.002,00	16.887,60	16.887,60	—	100,00	15.000,00
Guztira	3.173.150,00	2.837.860,48	2.812.301,00	25.559,48	89,43	2.665.200,00

Aurrekontu-emaizta

Kontzeptuak	Onartutako eskubide garbiak	Onartutako obligazio garbiak	Uneko ekitaldiko aurrekontu- emaizta	2023ko ekitaldiko aurrekontu- emaizta
a) Eragiketa arruntak	2.820.972,88	1.605.068,36	1.215.904,52	1.108.733,69
b) Kapital eragiketak	16.887,60	78.970,20	(- 62.082,60)	(- 43.193,81)
I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA (I=a+b)	2.837.860,48	1.684.038,56	1.153.821,92	1.065.539,88
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA	2.837.860,48	1.684.038,56	1.153.821,92	1.065.539,88



12.2.2 Itxitako aurrekontuen likidazioa

Azalpena	Ordaindu gabeko obligazioak urtarr. 1ean	Egindako ordainketak
Entitatearen konturako gizarte-kotizazioak	14.369,98	14.369,98
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	4.636,99	4.636,99
Langileen prestakuntza eta hobekuntza	284,55	284,55
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta aplikazio informatikoak	2.410,54	2.410,54
Altzariak	1.203,97	1.203,97
Aplikazio informatikoak	17.333,91	17.333,91
Bulegoko materiala	26,58	26,58
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	189,2	189,2
Posta bidezko komunikazioak eta mezularitza	169,48	169,48
Lokomozioa eta egonaldi-gastuak	2.314,07	2.314,07
Profesional independenteen lan teknikoak eta zerbitzuak	5.203,00	5.203,00
Aplikazio informatikoak	8.716,68	8.716,68
Bulegoko ekipoak	3.291,20	3.291,20
Informazio-prozesuetarako ekipoak	1.560,90	1.560,90
Itxitako aurrekontuetako obligazioak - 2023	61.711,05	61.711,05

12.2.3 Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua

	2024	2023
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	2.728.148,00	2.665.200,00
a) Ekitaldikoak	2.728.148,00	2.665.200,00
a.2) Transferentziak	2.728.148,00	2.665.200,00
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO DIRU-SARRERAK GUZTIRA (2+6)	2.728.148,00	2.665.200,00
8. Langile-gastuak	(-1.375.110,62)	(-1.337.472,21)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	(-1.141.428,06)	(-1.084.357,73)
b) Gizarte kargak	(-233.682,56)	(-253.114,48)
9. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak	(-5.000,00)	
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(-223.038,89)	(-203.994,10)
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	(-223.038,89)	(-203.994,10)
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(-42.655,63)	(-34.070,60)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+11+12)	(-1.645.805,14)	(-1.575.536,91)
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	1.082.342,86	1.089.663,09
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta besterentzeagatiko emaitzak	490,89	—
b) Bajak eta besterentzeak	490,89	—
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14))	1.082.833,75	1.089.663,09
15. Diru-sarrera finantzarioak	105.906,03	—
b) Zor-balio adierazgarrietatik, kredituetatik eta beste inbertsio finantzario batzuetatik datozenak	105.906,03	—
b.2) Beste batzuk	105.906,03	—
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)	105.906,03	—
IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkia eta desaurrezkia) garbia (II + III)	1.188.739,78	1.089.663,09



12.2.4 Ibilgetua

	Ekitaldi amaieran metatutako balioak			Ekitaldi hasieran metatutako balioak			Ekitaldiko aldaketak		Ekitaldiko amortizazioak		Baja garbiak
	EAMB			EHMB			EAL		EAm		
	EAMB Gordina	EAMB Amortiz.	EAMB Garbia	EHMB Gordina	EHMB Amortiz.	EHMB Garbia	EAL Berria	EAL Bajak	EAm Urtea	EAm Bajak	
Aplikazio informatikoak	774.103,43	635.485,33	138.618,16	704.619,63	596.740,36	107.879,27	69.483,80	—	38.744,97	—	—
Bulegoko ekipoak	21.764,24	8.722,40	13.041,85	20.691,99	10.238,90	10.453,09	6.364,60	-5.292,35	2.379,14	-3.895,64	-1.396,71
Ekipo informatikoak	6.152,85	2.353,83	3.799,02	3.031,05	1.010,73	2.020,32	3.121,80	—	1.343,10	—	—
Altzariak	160.751,52	160.353,80	397,72	160.751,52	160.247,08	504,44	—	—	106,72	—	—
Bestelako inbertsioak	5.005,80	5.005,80	—	5.005,80	5.005,80	—	—	—	—	—	—
Bestelako ekipoak	2.418,20	2.418,20	—	2.418,20	2.336,50	81,70	—	—	81,70	—	—
Makinak eta tresnak	387,80	387,80	—	387,80	387,80	—	—	—	—	—	—
Guztira, orokorrean	970.583,84	814.727,16	155.856,75	896.905,99	775.967,17	120.938,82	78.970,20	-5.292,35	42.655,63	-3.895,64	-1396,71



